



PLAZAKOARI AGUR

Bertsoari ez ezik bertsolaritzari eskainitako hirurogeitaka urteko ibiliaz sakonean, Imanol Lazkano 20



Ezagutu ezazu Miele-ren Azkoitiarako eta Azpeitiarako neguko promozioa

Azkoiti-Azpeitiko Miele-ren banatzailea bisitatu eta etxean bezala sentituko zara. Miele etxetresna elektrikoek aukerarik zabalena, beste guztien gainetik diseinu, prestazio eta iraunkortasunagatik nabarmentzen direnak. Zerbitzu ezin hobea eta aholkularitza aparta jasoko duzu gurean. Gerturatu zaitez eta ezagutu ezazu zuretzat dugun guztia.

Aprobetxatu itzazu neguko promozioaren prezio sinestezinak, 2012/03/31 arte bakarrik.

Azkoiti-Azpeitiko banatzaile ofiziala:

 **MILAR**
LARRAMENDI

Julio Urkijo, 16
20720 Azkoitia – Gipuzkoa
Tel: 943 851 897

Miele

uztarria

Argitaratzailea. Uztarria

Komunikazio Taldea, Azpeitia

Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea, (Azpeitia, 20730)

Telefonoa eta faxa. 943 15 03 58

Posta elektronikoa.

uztarria@topagunea.com

Posta kutxa. 227, Azpeitia

Lege gordailua. SS-860/2000

Zenbakia. 137.a (2012ko martxoa)

Urtea. XIII.a (1999ko azaroan sortua)

Maiztasuna. Hilabetekaria

Diseinua. Eregi Komunikazio eta

Euskara Zerbitzuak

Publizitatea. 685 730792 /

oalegria@uztarria.com

Bazkidetza. 943 15 03 58

Tirada. 2.500 ale hilerro

Inprimategia. Leitzaran Grafikak

Azaleko argazkia. A. Agirrezabala

Web orrialdea.

www.uztarria.com

Uztarria herri aldizkariaren laguntzaileak (erakunde publikoak)



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euzko Jaurlaritzaren Gobernua



azpeitia udala

Uztarriak Bai Euskarari

Oharra. Uztarria Komunikazio Taldeak ez du bere gain hartzen herri aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik



2012KO MARTXOKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?



16



04



34

mamia

Klik! Gotzon de Arriba, txakur-krosean lehiatzen **16**

Imanol Badiola.

Erremontea utzi behar izan du, bizkarreko lesio batengatik **04**

Auzolana. Ohitura zaharrak berreskuratzen **32**

Motxean. Lurdes eta Ana Odriozola lurrin saltzaileekin **26**

Motxean. Lurdes eta Ana Odriozola lurrin saltzaileekin **26**

jakiteko

Bestaldetik. Eneko Etxeberria Azpeitiko alkatearekin Udaletik kanpoko gauzez **34**

Hantxe bertan. Jon Ruiz de Argandoña, azpeitiarra Plata del Carmenen, Mexikon **37**

Hantxe bertan. Jon Ruiz de Argandoña, azpeitiarra Plata del Carmenen, Mexikon **37**

Hantxe bertan. Jon Ruiz de Argandoña, azpeitiarra Plata del Carmenen, Mexikon **37**

Ba aL dakizu bisoi europarraren ugaLketa sasioan, martxotik abuztura, urrestillan ibaiko Lanak geratuko dituztela? **Uztarria**

egin zaitez bazkide Uztarrian



943 15 03 58

Herri aldizkariak gain, Uztarriaren produktuak ere eskuratuko dituzu.

Uztarria Komunikazio Taldeak orain arte **12 liburu** (behekoak), **CD 1** (ondokoa) eta liburuxka biografikoak atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen, urteko kuota barruan.





1.060 bazkide

30 euro dira urtean.

gara dagoeneko Uztarrian; **117.010** euroko aurrekontua du Uztarriak 2012. urterako.

117.010 euroko aurrekontua du Uztarriak 2012. urterako.



Liburuxka biografikoak. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara

IMANOL BADIOLA

erremontista ohia

“umea hartzeko kapaz ere ez nintzen”

Hernia diskal baten eraginez kalbarioa pasatu du eta kirol profesionalari agur esan behar izan dio. Orain minik gabe dabil, eta baikorrago. 📧📞 Mailo Oiarzabal

Bi urte eskas- sen buruan asko aldatu zaio bizi- modua Imanol Badiolari. 2010a erremonteko Binakako Txapelke- ta irabaziz hasi zuen. Urte hartako urrian jokatu zuen azken partida eta 2011. urtea bukatzerako, ki- rolari profesional izateari utzi zion. L4 eta L5 ornoak non dituen on- doki ikasi du.

Zer moduz bizkarra?

Orain dela gutxi arte gaizki egon naiz, ezin nuen ezer egin. Orain dela urtebete izan nuen umea eta hura hartzeko kapaz ere ez nin- tzen; hartzen nuen, pixkat egoten nintzen, eta derrepente... ohera joan behar. Azkeneko bi-hiru hila- betera arte egon naiz horrela, gaizki. Orain, pixkat lasaitu naize- nean, eta igerilekuan ariketa pila

bat egin ondoren, hobeto nago. Baina, gogorra izan da.

2011ko apirilean egin zizu- ten elkarrizketa batean, nahikoa baikor azaltzen zinen. Gerora okertu al zen kontua??

Arazoekin hasi nintzenean, prin- tzipioz ebakuntzarik ez nuela behar esan zidaten, baina proba bat eta bestea egin, eta ez nuen batere aurrera egiten. Azkenean, operatzea zen irtenbidea. Medi- kuak ebakuntza erraza zela esan zidan, gainera. “Pixkat errehabili- tatu eta hiru bat hilabeterako frontoian izango haiz”, esan zidan; hori entzutzen duzu, eta... segituan, bihar bertan! Hasieran errekupeazioa ona izan zen, neuzkan minak eta inurridura-eta

||| DATUAK |||||

||| **Jai**o. 1978ko ekainaren 11n.

||| **Herria**. Azpeitia. ||| **Bizi toki**a. Arroa Behea (Zestoa).

||| **Lanbidea**. Iturgintza arloko bulego lanetan dabil orain, Azkoitiko enpresa batean.

kendu egin zitzaizkidan. Baina benetako errehabilitazioa egiten hasi nintzenean, gimnasia joa- ten eta mugitzen... Gero eta oke- rrago nengoela ikusten nuen. Ebakuntza egin nuenetik zazpi- zortzi hilabete pasatuta zeuden. Horrelako kasu gutxi tokatzen zi- rela esan zidan medikuak, hama- rretik zortzik ez zutela arazorik izat- en, baina, niri tokatu egin zitza- dala. Orduan esan nion pilota laga behar banuen, lagako nuela, baina bizitza normalerako behin- tzat ondo jartzea nahi nuela. Ho-

rrela, injekzio batzuk agindu zizki- dan eta orain, behintzat, hobeto nago.

Finean, erremontea uztea- ren erabakia gorputzak hartu du, zure kasuan. Zaila izan al da?

Erabakia, bukaeran, erraza izan zen. Bizitza normalerako gauza ez nintzela ikusi nuen eta, beraz, erremonteko gutxiago. Erre- monteaz ahaztu eta bizitza nor- malerako ondo jartzea, kezka hori alde batera uztea, pixkat erlaxatu eta errekupeazioa erabaki nuen. Funtzionatzen ari dela ematen du.

Erremontean hamalau urtez aritu zara eta lesio bat baino gehiago izan duzu. Emateko zenuen guztia emanda utzi duzula uste al duzu?



Belaunean eta orkatilan izan nituen lesioak ez ziren hain larriak izan. Hausturak izan ziren eta, progresioa pixkat moztuko zidaten agian, baina ez ninduten mugatu. Baina 25 urterekin aurreneko aldiz gerriko arazoak izan nituenetik, ordutik bai, mugatuago ibili izan naizela.

Zer gertatu zitzaizun orduko hartan?

Pilota baten bila atzeraka nindoala ipurdiz erori eta kolpea hartu nuen. Egun batzuetara mina hasi zitzaidan. Bi hilabete egon nintzen bajan, buelta eman nion, baina ordutik, bizkarra...

Kolpe hartatik al datorkizu oraingoa?

Bai, azken batean bai. Hernia diskala orduan agertu zitzaidan. Pixkat mugatu izan nau baina, beno, horrekin ez dut esan nahi muga hori gabe oraindik eta hobea izango nintzatekenik edo. Eman-dakoarekin gustura nago.

Binakako txapela ere lortu zenuen.

Orain dela bi urte irabazi nuen. Lesioa baino urtebete lehenago txapela jantzi nuen, eta urtebete ondoren erretiratu egin naiz. Beraz, bi aurpegiak ikusi ditut: goi-goian egotean zer sentitzen den, eta lesio baten ondorioz utzi behar izatean sentitzen dena.

Zer izan da erremon-teak eman dizun gauzarik garrantzitsuena?

19 urterekin debutatu nuen eta ume bat nintzen. Pertsona bezala, heltzen laguntzen dizu. Lagunartean ibiltzen zara, familia batean sartuta egotea bezala da. Bizitzan egonkortasun bat ematen dizu, arduratsu izaten ere erakusten dizu... Esango nuke, probatzen duenari, normalean gustatu egiten zaiola erremon-tea. Beti ari zara zerbait ikasten, egunero-egunero. Ez duzu toperik aurkitzen, eta hori gauza polita da.

Zure sasoiari ezagutu dituzun erremon-tistetatik bat aukeratzekotan, zein?

Topikoa eta errazena litzateke Ezkurra esatea, onena delako. Baina nik Pello Aizpuru aukeratu nuke, mantentzen zuen erre-gulartasunagatik eta kantxan erakusten zuen seriotasunagatik eta lehiakortasunagatik. Haren pentsakera eta jokatzeko era asko gustatu izan zaizkit beti.

“Bizitza normalerako ere gauza ez nintzela ikusi nuen”

“Geldirik egon behar hori onartzea, oso zaila izan da”

Nola ikusten duzu erremon-tearen etorkizuna?

Orain, zorionez, enpresa talde on batek hartu duelako eusten dio. Orain dela bi-hiru urtera arte hogeit hamar bat erremon-tista izango ziren, hortik bizi zirenak; gaur egun, berriz, ez da inor egongo, ez duelako ematen. Krisiari buelta ematen bazaio, erremon-tearen egoerak ere hobera egingo du.

Gorputza zeure onera etortzen ari zaizun honetan, beste kirol jarduerarik egiten duzu edo egin nahi al zenuke?

Oso gogorra izan da, txiki-txikitik beti kirola eginez ibili ondoren, juxtu-juxtu igeritara joan ahal izatea; eta orain arte derrigorrez. Beti zerbait egitetik, bat-batean ezer egiterik ez izatera... Geldirik egon behar hori onartzea, psikologikoki oso zaila izan da. Horixe izan da okerrera niretzat. Baina ari naiz pixkanaka gaintzen.*

Etorkizuneko eginkizunak

Zalantza gutxi daude gizate-riak etorkizunean dituen erronka nagusiene-tako bat garapen iraunkorrarena dela. Hala ere, soziologok ez dute beti berdin ulertu garapenaren kontzeptua. Garapena XX. mendearen zati handiengan herrialde baten hazkunde ekonomikoarekin identifikatzen zen. Ez zen 70. hamarkada arte izan garape-na herritarren ongizatearekin lotu zen arte. Ongizatearen gizartea zeritzon hartan ingurumenarekin loturiko lehen kezka agertu ziren eta lehenbiziko aldiz gure ingurune natura la zaintzeko beharra plazaratu zen. 80. hamarkadatik aurrera jabetu ginen etengabe ko produkzioan eta kontsumoan oinarritu-riko gure garapen ereduak ingurumenean sortzen zituen kalteez.

Eta bat-batean garapen iraunkorraren kont-zeptua entzuten hasi ginen. Konkretuki 1987ko Nazio Batuen erakundeko Brun- tland txostena izan zen kontzeptua lehenbizi-ko aldiz definitu zuena jarraian agertzen den bezala: "Uneko beharrak asetzera, datozen belaunaldiek beren beharrak asetzeko auke- ra arriskuan jarri gabe". Garapen iraunkorra sustatzeak herritarren bizi-kalitatea hobetzea dakar berekin.

Lurralde bateko garapen iraunkorra azter- tzean hiru faktore hartzen dira kontutan: eko- nomiaren eta enpleguaren egoera, hezkun- tza eta osasunaren kalitatea eta ingurumena- ren kalitatea. Gauden krisi egoera kontutan izanda egia esan lehenengo faktorea oso ko- lokan dago baina aukera dago garapenaren beste bi ildoak indartzeko.

Proposamenen beharra / arriskua

Politikoei dagokie gauza publikoa kudeatzea, iada Antzinako erromatarrek bere *res publica* kontzeptuan agertzen den bezala. Kudeake- ta honek gizarteari eta herritarrei eragiten dieten arazoei konponbidea emango dieten proposamenak plazaratzea dakar berekin. Erakundeak dira beraz bere funtzioa betez



markel mendizabal

Garapen iraunkorra sustatzeak herritarren bizi-kalitatea hobetzea dakar berekin

proposamenak herritarrei helarazi behar diz- kietenak. Eta herritarren oniritzia jasotzea izan behar da azken helburua, hori gabe neu- rrien eraginkortasuna txikiago izan baitaiteke.

Gipuzkoan azken urteetan eztabaida han- dienetarikoa sortu duen arazoa hondakin so- lidoen kudeaketa izan da. Proposamenak ugariak izan dira (errausketa zentroa, beste- ak beste). Orain Bildu izan da atez ate bezala ezagutzen den konponbidea proposatu duena beraiek kudeatzen dituzten Udaletako hondakin solidoen arazoa konpontzeko.

Eztabaida kalean dago jadanik eta beha- rrezkoa da herritarrei sistema berri honen abantailak eta beharrak ikustaraztea. Hori da orain Azpeitiko Udalaren erronka propioa. Konponbide onena izan daitekeela uste du- tenek herritarrei sinestarazi behar diete hori horrela dela. Ingurumenarekiko sentsibilita- tea sustatzea ez da erraza baina beharrez- koa. Proposamen aurrerakoiak egiteak ezin

uka arazoak sortzen dituela eroso- tasunean eta individua-

lismoan murgilduta- ko gizarte batean.

Ea ba denok murgil- tzen garen eztabai- dan eta konponbide egokiena aukera- tzen dugun.

Gure esku dago!!*



1.solairuan gaude



sukaldeak
berrikuntzak eta gremioen koordinazioa



urrategideko

altzariak & sukaldeak



Arretxe Kalea 9 - 1. Solairua
20730 Azpeitia (Gipuzkoa)
Telf. 943 85 72 44 · Fax. 943 85 13 14
urrategideko@urrategi.eu
www.mueblesurrategi.es

Denbora kontuez

N eguko goiz batean esnatu zara iratzargailuarekin, asmakari krudela eta kupidarik gabea. Gogo txarrez itzali eta mantapean sartu duzu burua, kabiaren epeletan. Zure gorputzak ohea asko maite du, hura fidela da eta gogo honez eta goxo hartzen zaitu, samur eta epel, batipat gaur bezalako astearte hotz eta euritsu honetan eta erabaki duzu minutu gehiago eskaintzea.

Oroituko zara jaikitzea kostatzen zitzaizun egun horietaz, umetan, goiz ilun hartaz, ama esnatzera etorri zitzaizunekoa eta zuk haren oin hotsak hurbiltzen somatuz ohearen bihotzean kuzkurto zinenekoa, mundutik aparte bazeunde bezala, edo lurraren erdigunean edo. Ez nago ama, ez nauzu ikusten beraz ez naiz existitzen. Tamalez ez zuen funtzionatzen, "beinga gosaltzea!" bat, eta bapatean mantarik ez eta hotza, eta pertsiana gora.

Baliteke goizeko 6:50ean Donostiara joateko Guipuzcoana hartzen duzuen horietako bat izatea, langile edo ikasle. Oheari minutuak eskaintzen eskuzabala bazara, kirola egitea tokatuko zaizu nahi eta nahi ez. Azpeitian korrikalari ugari dago, baina goizetako korrikalariak txalo gutxi entzuten dituzte, beraien itxaropena maleta, motxila eta gosaldutako Cola Cao edo kafesne eta guzti autobuseko atea zeharkatzeko denboraren barruan sartzea da.

Segunduak aprobetxatuz?

Supermerkatura joan zara azukrea erostera eta beraz ez duzu karrorik hartu. Nor engainatzea espero zenuen? Azkenean bi besoak beteta larri antzean iritsi zara kaxara bertako zintan guztia praust husteko asmotan. Hala ere, nahi zenukeena baino jende gehiagorekin topatu zara eta lerroan laugarren egotea tokatzen zaizu orain. Atzetik beste bat datorrela ohartu zara momentuan eta duda sortu zaizu. Zer egin? Edo kaxa ondoko karro hutsa hartu eta deskantsatu zure kaxari fidel jarraituz, edo alboko kaxa irekitzeko zain



|||||||iosu salegi|||||||

|||Azpeitian korrikalari ugari dago, baina goizetako korrikalariak txalo gutxi entzuten dituzte

egon, hara abiatu eta zintan deskantsua hartu hirugarren izatetik lehen izatera pasata: supermerkatuko pesak eta presak.

Orain autopistan zoaz txofer eta peajera iristen ari zara. Buruketak egitea tokatzen da, eta ez naiz txanponetaz soilik ari. Eskuz ordaintzeko kartelarekin hiru aukera dituzu, eta haruntz zuzendu duzu autoa. Ezkerrekoan trailer bat sartu berri da, erdikoan Volkswagen transporter zarretakoa, matrikula holandarrarekin aurrean gupil eta guzti ke lodia boteaz, eta eskuinekoan mantso-mantso kotxe frantses despistatu bat. Zein da aukera onena? Bai! Ongi aukeratu duzu! Trailerrarena zen onena. Txanponak prestazen hastera zoazenean, bapatean, zer den karreterako injustizia, atze motzeko auto guztiz beltzak diagonalean eta 40km orduko baino dexentez azkarrago, zure muturren aurrean sartu zaizu. Zer egingo zenioke aurreko tipoari?

Bizitzeko arnasa hartu behar, bai ala bai. ✘





Euskara Zerbitzua

- Itzulpenak eta zuzenketak
- Euskara planak

Komunikazio Zerbitzua

- Diseinua:
 - Logotipoa, papertegia...
 - Katalogoak, kartelak, diptikoak, triptikoak...
 - Aldizkariak, liburuak, liburuxkak...
 - Seinaleztapena
- Komunikazioa:
 - Prentsa bulego lanak
 - Komunikazio kanpainak
 - Mailing-ak...

HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

**GORA.** Iragarkiak euskara hutsean, bai horixe!

Urtarrileko zenbakian iragarki erraldoi bat jarri zuen erdera hutsean El Corte Inglés enpresak. Oraingoan, ez du euskara baztertu. Ea horrela jarraitzen duten. 📌 **Uztarrria**

**BEHERA.** Euskarari kasu zipitzik ez!

Herriko denda honek hankamotz utzi du euskara, oharra erdera hutsean idatzita. Euskararen ofizialtasuna lortzeko bidean atzerapauso galanta! 📌 **Uztarrria***



Mireia Epelde.

ESANA DAGO

III “Gizonezkoek ezin dute egun batean bi etapa egin, baina gure arauak ez dute debekatzen”

III “Egoskorrak ez bagina, ez ginatete txirrindulariak”

MIREIA EPELDE
txirrindularia

III “Enparan kalera iritsi, eta hamar minutu soilik igaro direla sentitzen da”

AITOR IRIARTE
sokamutilla

III “Plazak utzi eta astebetera saldu nuen bateria”

A. FRANTZESENA
txirrindularia



Kutxako bezeroei esker,
aldizkari honek bere Gizarte
Ekintzaren laguntza jaso du.

Harri eta zur

Munduaren amaiera hurbiltzen ari den neurrian gizakia bere mugetara iristen ari da. Gizakia gizaki denetik gorputz eta arima hobetzen eta indartzen aritu da. Belaunaldi berriek, beti, aurrekoen markak ondu egin dituzte. Zahartsoiak aurrekoa, zaharra hobesten badu ere, errealitateak, datu hotzekin, erakusten du gizakiak, gorputz eta arima, aurrera egin duela.

Gaitasuna baldintza egokietan landuz gero, lor litezkeen emaitzak harrigarriak dira. Kirola horren adierazle argia da. Gaur lortzen diren markak orain hamarkada bat pentsaezi-

nak ziren. Eta orain egiten diren markak hamarkada bat barru marka hutsalak izango dira. Usain Bolten markek Carl Lewisenak txiki utzi dituzten bezala etorriko da beste bat, Bolten azkartasuna makalduko duena. Indurainena ere latza zen Arsmtrong izenekoa etorri zen arte. Sarritan, askotan, ezinezkoa dirudien arren, txarra on bihurtzen duten berriak etortzen dira. Baina tarteka, aleka-aleka, handia bere garaira bidaltzen duen berria agertzen da.

Baina harritzeko, harri eta zur gelditzeko, kontu izugarrien beharrik ez dago. Eguneroko-

kotasunak bere marka txundigarriak ere eskaintzen dizkigu. Askotan, oharkabean pasatzen dira, normaltzat jotzen ditugu, baina egiten dutena egiteko, seguru izan, gaitasunaz gain urte askotako lana atzetik dagoela. Indurainek, Boltek, Retegik eta abarrek nire miresmen osoa duten bezala, egunero-egunero, eguzkiak berotu, elurra bota ala izotza egin, taberna kanpoko terrazan arratsalde osoa "kortau" batekin, geldi-geldirik pasatzen dutenek ere bai. Beste batzuk, orain urte batzuk, pipekin, antzekoa egiten omen genuen Betharram inguruko bankuan.✘

IKUSTEKOA!



▲ ENBOR ONEKO EZPALAK.

Gero eta gehiago dira adinean aurrera, laurogeitaka urtera iristen direnak. Ez da hain ohikoa, ordea, 85 eta 91 urte bitarteko zazpi senide topatzea. Eta are harrigarriagoa, inbidia sortzeko adinakoa ere bada, adin horretara iritsi eta elkarrekin mahai beraren bueltan gozatzeko osasuna eta umorea mantentzea. Bejondeiela Galarraga ahizpei! 🍷🍷 Uztarria.✘

OTSAILEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...



Zaborraren kudeaketa

ZABORRA. Erantzukizun sozialeko gai bat baldin badago, hori zaborraren kudeaketarena da. Sortutako zaborra nola gutxitu, edota zaborraren ibilbidea non bukatzen zen jakiteko interes handirik ez dugu erakutsi. Baina, orain Azpeitian aukera dugu eredu izateko. Beharrezkoa den informazioa eta baliabideak eskutan, zaborraren kudeaketari jendarte mailako erantzun arduratsua emateko.



izaskun egiguren



Auzo lokal berria

ILUNTZE. XJ Auzolanean taldeak pauso bat gehiago eman eta *Iluntze* auzo lokala ireki du. Taldea aspalditik dabil ekimenak antolatzen, auzoari merezi duen bizitza eta herrikoitartasuna emateko asmoz. Esan daiteke, auzotar eta herritarrek gustura erantzuten dietela proposamenei.



Sanagustin, helduen topagune

EPA. Ikastea gazteak garenean egin beharreko zerbait dela uste duenik ere badago oraindik. Uste oker horri erantzuteko aukera aproposa izan dugu, EPA Helduen Eskola Publikoak antolatuta, Sanagustin Kulturagunean ospatu diren jardunaldietan. Ikastea, batetik, ez delako adin

zehatz bati lotzen zaion ekintza; eta bestetik, egin beharreko zerbait izatetik, gogo-biziz egin eta kuriositatearen makina elikatzen duen ekintza delako. Bizian etengabe ikasten dugulako, eta ikasteak maila askotako onurak ekartzen dizkigulako.✘


Aldaketa eta erronka garaiak

Orain gutxi, Uztarriak web orriaren diseinu eta formatua eraberritu ditu. Bestetik, *Kontu Lepok* bere 14. alea kaleratu du. Herriko proiektu komunikatiboak sasoi onean daudela dirudi, eta ez da gutxi. Gero eta esku gutxiagotan pilatzen diren hedabide-kateen artean, ez baita erraza bizirautea. Horren adibide dugu *Publicok*, Estatu mailako ezkerreko egunkari bakarrak, papereko edizioa argitaratzeari utzi izana.

Onerako edo txarrerako, aldaketa garaiak bizi dituzte bai kazetaritzak bai eta komunikabideek ere, ein handi batean teknologia berrien eraginez. Alde batetik, komunikatzeko

forma berriek kontrol soziala eta harremanen birtualitatea areagotzea dakarte berekin. Bestetik, ordea, orain arte alde bakarrekoa zen mezuari aurre egiteko aukerak sortu dituzte, parte hartzeko espazioak sortu direlako, edota komunikabide propioak sortzeko baliabideak edonoren eskuragarri jarri direlako. Ez dago estudio, dirutza eta lizentzia beharrik telebista programa bat sortu eta hedatzeko; kamera bat, ordenagailua eta internetera konexioa nahikoa dira (*Argia.com*-en *Beranduegi* saioa ikusi besterik ez dago).

Teknologia berrien agerpenak, ordea, hedabide tradizionalen krisia eragin du. Gaine-



|||||||yuri agirre|||

ra, krisi ekonomikoarekin nahasturik ageri zaigu, kontsumo ohituren aldaketak eta publizitate bidezko diru-sarreraren gutxitzea elkar uztartu baitira. Hainbat hedabidek, inoiz baino irakurle gehiago izan arren, geroz eta diru-sarrera txikiagoak dituzte.

Beraz, aldaketa, krisi eta erronka garaia dugu. Elite ekonomikoek gidatutako hedabideei aurre egiteko bakoitzak bere aletxoak jarri beharrean gaude: ikuspegi militante batetik lan eginez, herritik sortutako hedabideak kontsumituz, parte hartuz, diruz lagunduz... Ohartzen ez bagara ere, ongi zaindu beharreko harribitxiak ditugu egunero esku artean.*

Sinesmena vs sineskeria

Orain gutxi, Uztarriak web orriaren diseinu eta formatua eraberritu ditu. Bestetik, *Kontu Lepok* bere 14. alea kaleratu du. Herriko proiektu komunikatiboak sasoi onean daudela dirudi, eta ez da gutxi. Gero eta esku gutxiagotan pilatzen diren hedabide-kateen artean, ez baita erraza bizirautea. Horren adibide dugu *Publicok*, Estatu mailako ezkerreko egunkari bakarrak, papereko edizioa argitaratzeari utzi izana.

Onerako edo txarrerako, aldaketa garaiak bizi dituzte bai kazetaritzak bai eta komunikabideek ere, ein handi batean teknologia berrien eraginez. Alde batetik, komunikatzeko

forma berriek kontrol soziala eta harremanen birtualitatea areagotzea dakarte berekin. Bestetik, ordea, orain arte alde bakarrekoa zen mezuari aurre egiteko aukerak sortu dituzte, parte hartzeko espazioak sortu direlako, edota komunikabide propioak sortzeko baliabideak edonoren eskuragarri jarri direlako. Ez dago estudio, dirutza eta lizentzia beharrik telebista programa bat sortu eta hedatzeko; kamera bat, ordenagailua eta internetera konexioa nahikoa dira (*Argia.com*-en *Beranduegi* saioa ikusi besterik ez dago).

Teknologia berrien agerpenak, ordea, hedabide tradizionalen krisia eragin du. Gaine-



|||||||joxe arregi|||

ra, krisi ekonomikoarekin nahasturik ageri zaigu, kontsumo ohituren aldaketak eta publizitate bidezko diru-sarreraren gutxitzea elkar uztartu baitira. Hainbat hedabidek, inoiz baino irakurle gehiago izan arren, geroz eta diru-sarrera txikiagoak dituzte.

Beraz, aldaketa, krisi eta erronka garaia dugu. Elite ekonomikoek gidatutako hedabideei aurre egiteko bakoitzak bere aletxoak jarri beharrean gaude: ikuspegi militante batetik lan eginez, herritik sortutako hedabideak kontsumituz, parte hartuz, diruz lagunduz... Ohartzen ez bagara ere, ongi zaindu beharreko harribitxiak ditugu egunero esku artean.*

lora-etxea . . .

Kimubat

ASTE BUKAERAN IREKIA

Azpeitia-Urrestilla Bidea 20730 AZPEITIA Tfnoa.943 150085 www.kimubat.com

Iuba

abokularitza

Aholkularitza:
- fiskala
- laborala
- kontablea

Gestori lanak
Finanzen administrazioa
Gestio inmobiliarioa

Tfno. 943 157 325 Faxa 943 157 275
Egurren katea, 45 • 48940 (Urretilla)

arte eta diseinu ikastegia

Dibujo eta eskulanak
(haurrak) 17:30/19:00

Pintura 17:30/19:00

Talla 19:30/21:00

Jose Artetxe kalea, 3
669 414 025 - 943812808
matrikula urte guztian zabalik



andoni salegi



atte, atte, ta nik zeatik ezin det amakin bizi?

eske zure aman "mecenas-a" razista xamarra da.

zer da razistie?

Berdina

Uterro berdina izaten da. Abuzturako izugarritzko ideia izaten duzu buruan: hau egingo dugu, halako aterako gara, izugarria izango da, baina gauza asko prestatu behar dira, eta konturatzerako eguna gainean izaten da. Orduan, amak esaten dizu baduela ez dakit nolako mozorroa. Huraxe jantziko duzu. Elegante egunean bibotea izateko ere bizarra kendu gabe egoten zara hilabetean.

Igandean, goiz antzean jaikitzen zara, bizarra mozteko eta pasakallera joateko. Oraindik jende gutxi egoten da kalean. Zezenaren irteera jotzen duzue, lagunak topatzen dituzu,

elkartean bazkaltzen duzu, zezenaren irteera jotzen duzue, zezen-poteoa egiten duzue, ahal denean erretiratzen zara.

Hurrengo egunean, umeen desfilerako mozorrotuta ateratzen zara etxetik. Ibiltzen zarete desfilean, bazkaltzen duzue Zaharretakoan, zezenaren irteera jo eta zezen-poteoa egiten duzu. Jon, Iñigo, Kepa eta Iñaki urtero neskez jantzen dira (bueno, mitikoa da Kepa eta Haritzen mexikano jantzia, baina azken urteetan neskez jantzi da), eta zezen-poteo erdian jantzerata eta makillatzerata joaten dira. Oilosoron afaltzen duzue, eta Bonbiren



■■■■■■■■■■ **eñaut frantzesena** ■■■■■■■■■■

kontzertuaren zain egoten zarete. Kalera joaten zaretenerako sari-banaketa bukatuta egoten da, eta normalean ez zara enteratzen hurrengo egunera arte-edo nork irabazi duen (aurten bai, aurten enteratu zara). Dida batean joaten dira orduak, eta diana jotzera joaten zara, hementxen dala, hementxen dala!! (aurtengoa inoizko lasaienetakoa izan da).

Aspaldian asteartean ez zara atera, baina aterako bazina, bandarekin eta zezen-poteoan ibiliko zinateke.

Urtero berdina izaten da, baina zain zaude, dagoeneko.✳

EMAN EZAZU ZURE NEGOZIOAREN BERRI UZTARRIA.COM BERRIAN

**Egunean 2.000 bisitatik gora.
Interneteko bilaketetan zure negozioa aurreneko postuetan agertuko da.**

http://www

SORTU ZURE NEGOZIOAREN WEB ORRI PROPIOA

**Eskaintzak, argazkiak, loturak...
modu ikusgarrienean jartzeko aukera.
Urtean 35 € soilik**

uztarria.com

Informazio gehiago: 943 150358 - uztarria@uztarria.com

Txakurrak tirata

Gizakiaren lagunik onena txakurra dela dioen esaeraren adibide garbia da duten harremana. Txakurkrosak lehiatzen dituzte elkarrekin. 📌 Ainitze Agirrezabala



▼ HASTAPENAK.

Duela hiru urte hasi zen Gotzon de Arriba txakurkrosean lehiatzen. Txakurra ekarri berritan, 2006an, abilezia ariketak irakatsiz hasi zen; gero, txakurrari mendi-bizikleta lotuta egin zuen frogia; eta, ondoren, lehiaketetan hasi ziren parte hartzen. Iaz, Espainiako ligan lehiatu zen, baina aurtengo denboraldian aita izan da bigarrenez, eta Gipuzkoako ligan jarri ditu gogoak.



▲ PRESTAKETA.

Furgoneta hartu eta familian joan ohi da krosa jokatu den herrira, bezperan. Ibilbidea ezagutzeko aprobetxatzen du egun hori, eta egunean bertan dortsalak jaso, txakurrari kontrola pasatu eta materiala jazten dute.

▼ 5 ETA 11 KM BITARTEAN.

Denboraldia urritik martxora izaten da, eta lasterketak 5 eta 11 km bitartekoak dira. Abiatu eta lehen 200 metrotan txakurra 'motzean' eraman behar da, txakurrak elkarren artean gurutzatu eta erorketarik egon ez dadin.





▲AURRETIK EDO PAREAN, BETI.


Krosean txakurrak beti jabearen aurretik edo parean joan behar du; deskalifikatu egiten dituzte, atzean geratuz gero. Lasterketa motzak baina biziak dira, mentalitate oso lehiakorreko txakurrak baitira. Border kollya eta artzain txakur alemaniarraren arteko nahasketa da Sugar.

►PODIUMA ZAPALTZERAINO.

Santanderren, Sorian, Nafarroan, Errioxan... jokatu izan dituzte krosak, eta podiuma zapaltzera ere iritsi da. Aurten, ordea, Gipuzkoako ligan dabil. Dirulaguntzak lortu eta gastuak murrizte aldera, Euskanikross talde osatu dute. Gero eta zaletasun handia dagoela dio de Arribak.

▼LOKATZETAN ERORITA.

Nahiz elurra, nahiz txingorra egin, lasterketa ez da inoliz bertan behera geratzen. Lasterketa ez jokatzeko arrazoia beroa da. 20 gradutik gora krosa ez da jokatzeko. Ez da ahaztu behar txakurrak direla protagonista, haien karrera dela. Ibilbidearen %5 errepidea izan ohi da, eeta gainontzekoa mendia eta pista. Argazkian, eguraldi txarrarekin lokatzetan erorita.



▲INDARBERRITZERA.

Lasterketa bukatzean indarrak hartzeko anoa-postua izaten dute zain. Lagunarte ederra dute, argazkia horren lekuko.





▲ GIZAKIAREN LAGUNIK FIDELENA, TXAKURRA.

Txakurrak eta gizaiak komunikatzeko darabilkigun lengoia edo hizkuntza desberdina izan arren, keinu batek mila hitzek baino gehiago adierazi nahi du. Karrera amaituta, txakurra eta jabea elkar besarkatzen.

▼ SEMEA ERE BAI.

Umeentzako probak ere badaude, kirol honetan txiki-txikitatik zaletzeko helburuarekin. Txikientzako lasterketak 80 metroko luzera du, eta hasiberrientzakoak 2.500 metro. Argazkian, Gotzon bere semearekin.



IMANOL LAZKANO

bertsolaria

“MOZKOR ALDI HORI IZAN DA GOZATU DUT NIK HAINBESTE”

Plazetatik erretiratzen dela jakinarazita, bertsoari eta bertsolaritzari eskaini dion ibilia sakon errepasatu du. 📝📷 Ainitze Agirrezabala

Bizitzaren liburuak eman dion jakituria lagun, pertsonen, belaunaldien eta ideologiaren arteko zubi lanean maisu izan da.

Herriz herriko jarduna uzteko erabakia zer dela-eta hartu duzu?

Egia esan, oso polita izan da gure ibilia. Bertsolarion artean ere giro aparta izan dugu. Horrek ez du esan nahi dena izan denik gozoa. Baina, bertsolariak izan du halako miresmen berezi bat betitik, Euskal herrian. [Manuel] Lekuonak ere esaten zuen, bertsolaria he-

rriaaren ahotsa zela. Esango nuke bertsolaritzaren inguruan biltzen den jendea dela Euskal Herriaren arnasa. Jende abertzaleena, jatorrena, herrikoiena, herriarekin kezkatzen dena... Bertatik bertara ezagutu eta jende guzti horrekin hainbeste urtean harremana izatea zoragarria izan da. Eta niri orain, uzteko erabaki horrek, ematen didan pena handiena da, nolabait esateko, jende horrekin guztiarekin mozten duzula. Eta horrek ematen dizu halako kezka pittin bat. Baina, nik uste dut garaia heldu dela.



udalako



Asko kostatako erabakia izan al da?

Bai eta ez. Nik neuk garbi neukan, ikusiko banu gaurko bertsolaritzak nire beharra baleukala oraindik, bertsolaritzari hainbeste zor diogunez gero, ez nioke ukatuko. Baina, ez dut ikusten nire beharrik dagoenik eta uste dut bere garaian moztea ez dagoela bate-re gaizki. Bertsolari bakoitzak ditu bere abileziak eta ezinak edo akatsak, nolabait esateko. Eta nik plazari, mikrofonoaren aurrera joate horri, errespetua baino gehiago, beldurra esateko adina badiot. Eta segurantzi falta horrek niri, behintzat, sekulako izua ematen dit publikoaren aurrerako beti. Nik beti, agurrean, beti beste bat hastea nahiago izan dut. Behin lehenbiziko zera hori pasatu eta publikoarekin ia lotura hori lortu eta gero, gustura jardun milaka aldiz egin dut. Nik ez dakit zenbat mila saio egingo nituen 60 urte inguru honetan, baina ziurtatzen dizut oraindik ez naizela sekula santan gustura hasi bertsotan inon. Ez sinestekoa da hori, ezta? Nik badakit gure burmuinak ez direla orain 40 urtekoak; hori alferrik da esatea. Estuasun puntu horiek-eta pasatzeko beharrik ez dut ikusten, eta nik pentsatzen dut, 'zertan ibili behar diat hor, mutil koskorrak bezala'.

Horren berri Bertso Egunean ematea zergatik erabaki zenuen?

Bertsolaritzaren arima han zegoen eta momentu egokia zela banekien, baina esan arteko hori gogorra egin zitzaidan. Behin korapiloa askatuta lasai sentitu banintzen ere, gaizki bukatu nuen bertsoa, larri. Horrelakoetan lotsatzeko moduko makala izan naiz, beti. Geroztik egon naiz pentsatzen, eta xelebrea da gauzak nola izaten diren bizitzan. 40ko hamarkadaren erdi aldera, dozena bat urte izango nituen, On Julian Barrenetxea organista eta haren laguntzailea maristetara etorri ziren mutil koskorren artean ahots berriak bilatzera. Ni ez

|||DATUAK|||||

|||**Jaio.** 1936ko hilbeltzak 12.

|||**Herria.** Antzibarrena baserria, Landeta, Azpeitia. |||**Bizi tokia.** Landeta, Azpeitia. |||**Lanbidea.** Bertsolaria eta eraikuntzako enpresaria.

naiz musikari eta kantolari aparta, baina aukeratu egin ninduten. Barrenetxea apaiza zenez, gure etxean hainbesterainoko indarra zuen erlijioak, apaiz baten eskura joan behar nuela esan nuenean gustura sentitu zirela uste dut. Kurioso da, ez dakit bi urte edo zer egin nituen koruan kantatzen tiple bezala, eta Donostiako lehenengo Kursaal zaharrea hartu genuen parte txapelketa batetan. Antzoki baten, jendaurrea nire lehenbiziko kantaldia bertan izan zen mutikotan. Ez bertsolari bezala, baizik tiple bezala. Gero, handik 65 bat urtera, bigarren ume aldira iritsita, berriz ere Kurasaalean eman dudala nire ibilbidearen bukaeraren berri. Izenburu bezala 'Kursaaletik Kurasaalera' jarri daiteke, nire bertso ibilia kontatzekoan. Paradoxikoa da. Egun hartan eman nuen mezua hau da: *Azken mezua eman nahi nuke herriak uler dezala enbor zaharrari geroago ta zailago zaio ezpala adinak eta nire zentzuak agintzen didan bezala herriz herriko ibili hori aurtan bukatzen dedala*

Urte guzti horietan zenbat plaza egin dituzu?

25 urte inguru egingo nituen urtean 100 bat saio eginez. Hasieran, noski, askoz ere gutxiago. 60ko hamarkadan, soldadu joaterako hasi ginen saio banaka batzuk egiten. Soldaduskatik bueltan, 1960an, bete-betean harrapatu gintuen iraultza giro hark. Francok lehenbiziko 25 bat urtetan hainbesterainoko egurrarekin denak mutu eduki zituen, eta gero, 50eko hamarkadaren azken aldetik hasi eta hil zen arte, Euskal Herrian iraultza giro izuga▶

► rria izan zen. Hor sortu zen, one-rako edo txarrerako, ETA bera; lkastolak, gero; 'Ez dok Hamahiru'... Gu gazte-gazteak harrapatu gintuen, eta bertsolariak bere lekua hor nahiko ondo bete zuela uste dut. Garai hartan, politikaz hitz egin eta herriari zerbait esateko aukera bakarra kontzientziatutako apaiz gazteren batzuek elizan edo bertsolariak plazan zuten. Beste dena –irratia, telebista, prentsa– debekatuta eta kontrolatuta zegoen. Orduan ere baziren bertsolariak, bertsolariak politikarako ez zela ziotenak, baina uste dut, Lekuonaren esanari jarraituz, herriaren ahots baldin baginen, herriari zor geniola halako zerbait, eta hor geure hondar alea jarri genuen eta barrubarruan sentiitu ginen. Orduan hasi ginen Herrian zehar geure buruak ezagutarazten. Gure urte fuertek plazaz plazako ibili horretan 70eko hamarkadaren azken aldera etorri ziren. Orain, azken aldera, gutxi egiten ditut oso. Jakineko plaza batzuk baditut urtero, hogeiz behetik.

Nondik-norakoa duzu bertsoarekiko lotura?

Gure etxean, bertso zaleak ziren. Aitonak bertso zahar asko zekien, eta hark erakutsi zidan erbiaren bertso bat, lau urte egiterako: *Erobi gorri bat zen-eta / begiak larriak / isatsa motza eta / luze be-*

larriak / egiten zitun salto / ikaragarriak / ez dik harrapatuko / atso elbarriak. Gure auzoan ezagutzen nindutenek esaten zidaten: 'hemen dek gure bertsolaria! la kantatu bertsoa!'. Eta, nik jarri besoak atzean eta kantatzen nuen. Buruz ikasi nuen nire lehenbiziko bertsoa. Gero, lehenbiziko aldiz tabernan bertsoan jardun nuela aitari esan ziotenean kristoren bronka egin zidan: 'horixe falta diagu, bertsolari bat etxean'. Abel Muniategik esaten zigun bertsolaria zela ez agintariak, eta ez elizak dominatu ez zuten elementua. Bertsolariak oso gaizki ikusia zegoen jende ikasiarentzat, eta batik bat, eliz gizonentzat. Bertsolariak tabernako mozkorren eta gaizki esaleen kontua zen, orduko bertso eskolak tabernak ziren-eta. Nik aita estimatzen eta errespetatzen nuen izugarri, baina 'alferrik ari haiz ba!', pentsatzen nuen nirekiko. Hain nuen itsatsia nire bertsolariaren har hori barruan! Onartu zuen gero, plazaz plaza ibiltzen hasi ginenean, bertsozalea baitzen bera ere. Badakit gustura egoten zela inoiz Loiola Irratian gure bertsoaren batzuk kantatzen genituenen. 'Entzun dizkiat zuen bertsoak Loiolatik', eta horrelako komentarioak egiten hasten zenean, nik leporatzen nion pikardia pixkatekin: 'Ba, zuk lagunduta, zuk animoak

emanda'. Ez zion graziaz egiten gero hori entzuteak, baina bazekien adarra jotzen ari nintzaiola.

Nolakoa izan zen zure lanaketa? Bertsolari jakin bat edo bazenuen erreferente?

Niri gustatu zaizkit Baxerriren

“pentsatzen dut: ‘zertan ibili behar diat hor, mutil koskorak bezala’”

“‘kursaaletik kursaalera’ ipini dakioke izenburu nire bertso ibilari”

bertsoa egiteko gatza eta euskara dominatzeko ahalmena; Uzta-pideren ziria, pikardia eta ikuspegi aurrerakoa eta zorrotza; Xalbadorren sakona; Agirriren ziria, eta Lizaso Joxeren erritmoa. Horiek denetatik zerbait lantzen saiatu naiz eta, gero, ahalegin guzti horren emaitza da zuk lortzen duzuna. Denetik nahasketa bat naizela uste dut. Papereko bertsoak ere dezente egin ditut eta horrek asko laguntzen du. Pixka bat perfektiora bultzatzen zaitu. Ahal duzula, ez daukazu

akatsik uzterik papereko bertsoan. Eta, nire papereko bertsoak egiteko era, buruz kantatu eta kantatu ari naizela txukundu izan ditut, eta halako batetan, 'hauek ez dizkiat gehiago txukunduko' pentsatu, edo asperten naizenean, pasatzen ditut paperera. Gero, nire ogibidea dela-eta, auzo ordu asko egin beharra izan dut urte sail batean, eta nire bertsolariak preparatzeko bulego aparta izan da hori. Orduak eta orduak egin ditut, nire gisara bertsoaren zurrumbilo horretan. Batek baino gehiagok esan digute, 'zuek bertsoan erraztasun handiarekin egiten duzue'. Baina, hori ezta zerutik etorritako be-deinkapen bat. Hainbeste ordu eta hainbeste urtetako gimnasia mental baten ondorioa baizik. Hori egiten ez duen bertsolaria ez da puntan ibiliko. Lan ikaragarria dago guzti horren aurretik. Egoskorra eta eroa izan behar du.

Urte guzti horietan nola uzartu dituzu familia eta bertsoa?

Hori neuk esanda igoal politago geldituko da, andreari galdetuta baino. Nonbaiten kantatu nuen, bertsolari baten bikotekide izatea baino ijitoaren astoa izatea hobe zela. Bertsolariak gustatzen ez zaion eta herri-kultura eta konpromiso hori sentitzen ez duen bikotekide batek ez dauka bertsolari

Baserria, unibertsitaterik onena

|||“Baserrian sortu, hazi eta eman zidaten heziketaz oso harro nago. Askotan gogoratzen naiz gure sukaldeko mahai luze hartaz. Egunean bi aldiz, gutxienez, hamalau lagun elkartzen ginen bertan: hamar senideak, aita eta ama, eta aitona eta amona. Nik esango nuke, gaurko enpresetan erabiltzen den hitz bat, erderakada noski, *comidas de trabajo* deitzen zaio, haiek zirela benetako *comidas de trabajo*. Mahaiaren inguruan hausnartzen ziren etxeko diru-kontuak. Etxean sortzen zen eta kanpotik ekarri behar zen gauza bakoitzaren prezioen nondik-norakoa eta abar. Etxeko heldu eta haur denen aurrean egiten zen ariketa hori. Gero, urtaro ezberdinetako lanak ere bertan eztabaidatu edo hitz egingo ziren. Eta, unean uneko beharren arabera, bakoitzari zegozkion ardurak han banatuko ziren.

Horrela, oso mutiko ginelarik, eskola orduak bukatuta gero, egunero izaten genuen eginkizunen bat. Eta, guztia, girorik gozo eta naturalenean. Esango nuke mundu honetan, benetako garrantzia duten baloreak baloratzen ere erakutsi zitzaigula. Gero, orduak edo unerik libre baldin bagenuen, baserri batean erremintak beti eskura izan ohi direnez, gure behar genituen jostailuak geure erara egiten ere ahalegintzen ginen. Gaurko haurrek bezala, Olentzeroren eta Erregeen zain egotea alferrik zela bagenekielako. Guzti horrek, esango nuke nik, eskolak utzi eta hamalau urterekin lanera hasi ginenerako, nolabait esateko, gizon koxkor eginda atera ginela uste dut. Eskolan ikasiak ere nire bizitzan garrantzia izan zuela badakit, baina uste dut gure baserri zahar hartan, askoz ere gehiago ikasi nuela”.*

bat aguantatzerik. Pazientzia handia behar du bertsolari baten bikotekide izateko. Gainera, nire lanbidea dela-eta, beste hainbat konpromisotan ere sartuta ibili naizelako, etxean eta sendian hutsune handiak utzi ditudala ez daukat ukatzerik. Badakit etxerako ez naizela izan senar edo aita eroso bat. Halere, maite nautela ematen du. Harritzekoa, ezta?

Gustuko izango al zenuen alabaren batek zure bidea jarraitu izan balu?

Gazteena ibili zen bertso eskolan-eta pixkat. Bazirudien bazituela horrelako zera batzuk, baina nik ez nion gehiegirik bultza nahi izan. Hori alferrik baita. Nire alaba bat Maialen edo Alaia Martin bat atera balitz, gustura, eta harro sentituko nintzateke, baina ez daukazu behartzerik. Nik badakit neuk mozkor aldi hori izan dudalako gozatu dudala, baina giro horretara sartu eta bera sentitzen ez bada eroso... Hori norberak sentitu egin behar du, eta norberak gozatu. Hori hala da, bertsolari-tan bezala beste edozer ofizio-tan ere. Norbere ofizioa ilusio pittin batekin egiten ez baldin bada, ofizial ona ez dago izaterik. Eta nik bizitzan izan dut suertea izugarria. Bi afizio baino gehiago bi bizio izan ditut, nire ogibideko lana eta bertsoa. Nekeak, bai batean eta bai bestean, pertsona normalaren bateko hiru jasan ditudala badakit, baina beti gustura. Hori da, azken batetan, bizitza.

Etxean Imanol, kanpoan Lazkano. Nola eraman izan duzu bat bitan banatze hori?

Kurioso da hori. Ni Azpeitia mailan, Imanol naiz edo *Gaztelu*, bestela. Eta behin Zestuz gero Lazkano. Lazkano bertsolaria. Herri batetara joan eta nik badakit han, aurrean dauden haiek Lazkano ikusten dutela eta Lazkanoren jarriera desberdina da Imanolenarekin alderatuz. Haien aurrean nik badakit nirekin hizketan ari den hura Lazkanorekin ari dela, eta nik ere Lazkano bertsolari bezala erantzun behar diedala, ez ber-



On Julian Barrenetxearekin triple zela. Lazkano, behetik hasita bigarren ilaran, ezkerretik aurrena da.

tsotan ari nazenean bakarrik, baita hizketa solean ari naizenean ere. Horrela, Azpeitiko plazan bertsoan egitea gogorra egin zait beti, Azpeitian Imanol naizelako. Ezin sinestu Lazkano naizenik. Kanpora joan eta, nolabait esateko, geure barruko *ni* madarikatu

“Azpeitiko plazan bertsoan egitea gogorra egin zait beti”

“bertsolaritzak miresmen puntu bat sortzen du eta jendea biziitzen da”

hori, barruan dugun harro puntu hori, kanpoan tak pizten zaizu, eta herrian ezin piztu. Sinestu egin behar da.

Belaunaldi desberdinen arteko zubi-lanean oso garrantzitsua izan zara.

Uztapide eta Baxerri niretzako jainkotik ere gorako pertsonak ziren, eta nik orduan pentsatuko nuen bada haiekin lagun izatera iritsi eta elkarrekin plaza batetan edo bestean kantatuko nuela? Garai hartako bertsolariak, lehen esandako tabernako giro horretatik zetozenak zirenez, elkarri

mozketa eta zipoka aritzeko fama zuten. Apustu bat zen bertsoa, hizketan zeinek puskatu bestea. Nik Uztapide eta Baxerriekin kantatzeko gogoia bai, baina bestetik errespetua eta beldurra nituen: ‘Horiek emango zidatek niri egurra!’. Bada, sekulako giroa bilatu nuen. Hori jaso genuen haiengandik eta nik ondorengoei giro hori pasatu nahi izan diet. Gero, 25 urtean eskolarteko txapelketetan epaimahaiko izan nintzenez, ondorengo belaunaldiak bertatik bertara ezagutzeko suertea izan nuen eta, orduan, neronek aurrekoengandik jasotako hori nola ez luzatu gaztedia horrengana. Nik Maialen [Lujanbio], sarasuatarrak, [Xabier] Eguzkitze... horiek denak, eta bidean arrazoi desberdinengatik gelditu diren beste asko, ezagutu ditut jaiotzen, oinez ikasten eta korrika egiten. Suerte hori eman zidaten eskura eta haiengandik asko ikasi dudala ez dut ukatzerik. Zubi-lana egin dudala esatea ez dakit zuzen dagoen, baina inguru horretan neronek gozatu ederrak hartu ditudala aitortu beharra daukat.

Zuk ikastea diozu. Gimnasia mental hori beharrezkoa izango da, baina liburuak irakurtzea beharrezkoa izango da egunera egoteko. Nola janzten da bertsolaria? Halabeharrez, gure ikasketa denak erderaz egin genituen. Eta euskaraz irakurtzeko erraztasun

gehiegi ere ez dugu izan. Horri eranstean badiogu egunean hamabi orditik behera ia lana sekula ez dugula egin, egia esan liburuak irakurtzeko denbora eta gogo askorik ere ez dut izan. Nik lehenago ere inoiz esan dut, paporeko liburu horietakoa ez dena, eguneroko bizitza dela liburu garrantzitsua, egunero orri berri-berria zabaltzen duena. Eta orri horiek irakurtzeak garrantzia izugarria du edozeinengana. Gero zeuk pasatu galbahea eguneroko liburu horri. Hori ondo irakurtzen jakiteak aurrera begira ikuspegia zabaltzen asko laguntzen ditu. Azken batean, liburuetan zer dago? Bakoitzak bere bizipen-tatik jaso eta idatzitakoa. Liburuak hori dira, azken batean.

Orduan, zuk ezagutuko zenuen jende bat eguneroko liburu hori irakurtzen onak.

Euskal Herrian zorionez izan da jendea, geuk ere ezagutu izan ditugun aitona-amonak, jaiotze eta hil arte naturarekin harreman estu-estuan bizi izan direnak. Urteko lau urtaro eta eguraldi desberdinak, zuhaitz, landare, abere, hegazti, arrain eta gizakien eguneroko joan-etorri hori bertatik bertara ezagutu dituztenak. Eguneroko bizimodu horrek bere burua jazteko aberastasuna eman diotenak. Besteak beste, gauzak esateko erak, esaldi zaharrez nola aberastu zuten hizkuntza. Esate baterako, norbere akatsak gorde eta ▶

► besterenak azaldu eta salatzen ari ginenean esango ziguten: 'lehenago ere zozoak beleari ipurbeltz deitu omen zioan'. Eta, horrela amaigabeko esaera zaharren zerrenda bat aipa genezake. Jende hori, nahi baldin baduzu, gaurko papereko liburu horiek irakurtzen analfabetoak ziren, baina eguneroko liburu garrantzitsu horren irakurle zorrotzak izanez nik esango nuke filosofo eta katedratiko apartak zirela. Gaur zalantzarik ez dago jakinduriaz jatzeko liburu asko irakurri behar dela, baina gaur ere liburu horiez aparte eguneroko bizitza edo eguneroko liburu horri ere begiratu bat zorrotz eman eta hausnartzeak asko laguntzen duelakoan nago.

Erniarraitzen sortzaileetako bat ere bazara. Zer aitatu zenuke bertso eskolez?

Niretzako bertso eskolari garrantzia gutxiegi eman zaio orain arte. Ez dut uste oraindik ere ailegatu garenik herriari kontzientzia hori zabaltzera. Zoritxarrez, gaurko gazteak elkarriketan ia-ia mutuak dira. Egin dugun mundu berri honetan haurrek eta gazteek elkarrekin jolas egiteko eta elkarriketarako astirik eta aukerarik ez dute. Horregatik diot, bertso eskolak duen garrantzia. Gazte batek bertsoa egingo badu ahalegin berezia egin beharra dauka hizkuntza lantzen. Eta, ez hizkera bakarrik, bertsoan

hasten direnean arrazoi sakon bati beste arrazoi sakonago batekin erantzun nahi izaten zaionez, pentsamendua ere landu beharra dauka, nahitaez. Beraz, bai hizkuntza aberasten eta bai pertsona bezala osatzen, bertso eskolak asko jazten duelakoan nago. Bertsolari onak eta berriak ateratzeko direla bertso eskolak esaten bada ere, bertsolari ona baldin badator etorriko da, baina ez diot nik bertsolariak ateratzeari bakarrik ematen hainbesteko garrantzia. Nik horri baino garrantzia handiagoa ematen diot, orokorrean, gazteria jazten laguntzeari.

Batez ere, zer eman dizu mundu horrek?

Aitatzen ari naizen guzti hori dena, Euskal Herri osoa eta bertsolariaren inguruan mugitu den jenderik jatorrena ezagutzeko aukera. Herri bakoitzean dago jakineko jende bat, gertatzen dena gertatzen dela, beti lanerako pronto. Jende hori Euskal Herriko zazpi probintzietako herririk txikienetan ere badago. Jende horren guztiaren lagun izateak eta mima jasotzeak, horrek ez du preziorik. Gaur edo bihar Euskal Herria askatzen baldin bada, ez da askatuko politikoei eta izarrei esker, herriaren arima diren eta beti lana egiteko borondatea izan duen jende horri esker, baizik.

Txapelketak, nor baino nor lehiatu beharra... Baina, ber-



Berak esan zuen bezala: 'astoak astotegian'.

tsoa ez ote da neurtezina?

Nik garbi eduki dut beti, eta, zentzu batetan, txapelketen kontra egon naiz beti. Neu ez naiz eroso sentitu, batik bat bertsoa neurtezina delako. Zein da gai bertso bat neurtzeko? Non dago baskula, jendea negarrez utzi duen bertso sakon bat eta ateraldi bikain batekin, umorez egindako bertso bat astunagoa zein den markatzeko? Baina, euskaldunak garen bezalakoak garelako, apustu giro horrek sortzen duen morboa eta hainbeste mila lagun erakartzeko aukera sortuz, bertsolariari egiten dion halako ospe moduko hori ikusita eta, gainera, bertsolari gazte batek bere burua erakusteko tribuna bakarra txapelketa duenez, txapelketak egin beharra dago, baina berez ez bertsoa neurtu litekelako.

Bertsotarako lagun eta plaza bat aitatzekotan, zein?

Hainbeste plaza on tokatu izan zaizkit eta hainbeste lagun on. Ez dak Oso eroso sentitu naiz Agirrekin, Lizaso zaharrarekin, Gorrotxategirekin, herriko denekin. Horiekin bezala lehengo zaharrek ere bai: Baxerri, Lasarte, Lazkao Txiki... Bertsolari bat, horrela grazia eta oso itsatsita daukadana, Uztapide. Gatz bat bazuen hark, eta aurrera begira ere zuen ikuspegia. Azkarra zen. Bertsolarietan, nik ezagutu dudak azka-

rrena esateko modukoa. Kristoren umorea zuen. Gizon gozoa zen. Gogoan dut, Abaltzisketan biok, *mano a mano*, eta ni bezalaxe ez zen hura ere aurrena hasten zalea eta barre pikaro batekin esan zidan: 'Edade horretan bazekiagu zer izaten den eta hik bidean agurra preparatuta izango duk eta hasi hadi'. Hasi ginen eta egin genuen saio hura. Handik egun batzuetara Irunera joan ginen, San Martzialetan, Lizaso Joxe eta hirurok. 'Benga, gaztia, hasi!', esan zidan, eta nik ere pikardia pixkatekin: 'Zu Manuel, gaur ez dut bidean bertsoa pentsatu e!'. Eta, esan zidan serio-serio: 'Hau Abaltzisketatik urruti xamar zagok eta hura bera kantatu zak!'. Hor ikusten da haren pikardia eta umorea.

Nolako etorkizuna ikusten diozu bertsolariari?

Elkarrekin orain arteko dinamika hori mantentzen oraingo oso indartsu dagoela somatzen dut. Bertsolariak badu halako erakargarritasun berezi bat, miresmen puntu bat sortzen du eta jendea pixkat biziitzen da hor. Oraingo, behintzat, oso sano dagoela ematen du. Etorkizuna esatea ez da erraza, baina beste urte sail handi batzuetako garrantia, behintzat, ikusten zaio, jende gazte eta on askoa badago eta badator-eta.★



Hiru bertsolari mitiko: Imanol Lazkano, Joxe Agirre eta Joxe Lizaso.

MIKEL MENDIZABAL

“Ezohiko despedida iruditu zitzaidan”

“Bertsoa entzun nuen momentuan zirrara sentitu nuen, ezohiko despedida iruditu zitzaidan. Imanol, behin baino gehiagotan sumatu dugu lagunartean, pixkana-pixkana bere bertso jira uztera dihoala esanez. Baina, ez nuen uste Kursaleko plazan joko zuenik bere asmo horren bandoa. Bere garaian, Xabier Euzkitze eta Jon Sarasuak plazako jarduna uztera zihoazela iragarri zutenean ezusteko galanta jaso genuen. Baina, orduan, beste arrazoi batzuk zeuden tartean, eta beste irudikapen bat nagusitu zen bertsozaleengan. Imanolen despedidako bertso hori entzun baino ordu laurden bat lehenago, eskal bertsolariaren ohiko arrazoi bat entzun genuen oholza berean Jon Azpillagaren ahotik: “zutik nagoen artean”. Esanguratsua benetan, adin beretsuko bi bertsolariaren arteko pentsamolde ezberdinen plazaratzea. Protokolo ezberdinak ikusi eta jarraitu ditugu azken mende erdian. Aurtengo Kursaleko saioak beste ate bat zabaldu duela iruditzen zait: kirolariaren antzera, bertsolariak bere ibilbidearen despedida plazaratzeko aukera, alegia. Neri entzulearekiko errespetua eta kontsiderazioa iruditu zait karreraren amaiera adierazteko modu hori. Zuzen-zuzenean entzun degu bere plazetako despedida. Dotorrea, benetan!”.



IÑAKI MURUA

“‘Bisiolari’ modura aritu da gurekin”

“Hiru azpeitiarrak, ni gaxtea nintzela, gure miresmena lortzen zuten hirukoa zen, bereziki ziri bertso eta puntutako abiada eta erantzun zorrotzetan. Imanolek, *Gazteluk*, bertsoan egiten zuen lanarekin txoratu ohi ninduen. Egundoko lanketa egiten zuen (orain ere haren buruak ez zion utziko ohitura horri) bertsoaren tripetan. Asko landutako bertsoa zen berea eta, berak aitortu ohi duen moduan, errepidean bolantean egindako kilometro mordo hori majo aprobetxatzen zuen arrazoi arrazoiarekin tolestatzeko eta bertsoaren barruko joskerak arakatzeko. Aurrelan hori ederki baliatzen dakien sortzailea da Imanol. Hargatik luzitu du bertso jarrietan ere. Gizon eta lagun bezala, berriz, belaunaldi arteko zubi lana bikain burutzen asmatu duen elementu kohesionatzailea, bertsolari garaikidea; kontalari eta narratzaile oparoa; jendetasun handiko pertsona eta senar zintzoa; bizitzaren liburuak eman dion jakituria lagun, “bisiolari” modura aritu dena gurekin eta, neurrian bustitzen asmatu duena, gehienentzat neurri hori neurritz kanpokoa izango den arren! Eta bukatzeko, oso animalia maittea ere bada, beti eduki du azindariaren bat edo beste etxe inguruan eta, agian, horregatik asmatzen du gurekin hain ondo. Sasoiko eta umoretsu bedi urte askoan!”.

JOXERRA GARZIA

“Pribilejioa da halako lagunak izatea”

“Imanol baino lehenago ezagutu nuen Lazkano. Oñatiko Larraingain elkarteak antolatzen zuen saioan han izaten zen Lazkano, eta esango nuke kantatu osteko solasaldietan hasi nintzela Imanol ezagutzen. Ez da erraza artista moduan miretsi duzun baten lagun izatera heltzea, baina garbi daukat Imanolen adiskidetasuna dela bertso munduak egin didan oparirik ederrenetarikoa (eta egin dizkidan beste opariak ez dira ez gutxi ez nolana hikoak). Hogeitau urte izango dira, San Inazio egunez Imanol eta Arantzanean bazkaltzen dugula, eta nik sentipen bera izaten dut aldiro: pribilegio handia dela horrelako lagunak izatea. Gizatasuna eta gizalegea, bi hitz horiek etortzen zaizkit burura Imanol aipatu orduko, eta horiek jarriko nituzke, euskaltzalearenarekin batera, Imanolek erakutsi dituen bertute guztien gaineretik. Bertsolari Elkarteak sortu zenean, ezinbestekoa zen pertsonen, belaunaldien eta ideologien arteko zubi lana egingo zuen lehenakari bat aurkitzea, eta begirada guztiak Imanolengana jiratu ziren. Ez dakit sekula behar bezala eskertuko diogun. Nago Imanol Lazkano lehendakariak ez ote duen itzalean-edo utzi Imanol Lazkano bertsolaria. Erretiratzea erabaki duen honetan, merezi luke norbaitek Imanolen bertso-gintza ganoraz aztertzea”.



MAIALEN LUJANBIO

“Kantukide izateko suertea izan dugu”

“Ustekabean harrapatu gintuen Kursaleko bertso haren bukaerak, eta teloi atzealdean geundeneon begiradak elkarri kateatuta geratu ziren, mutu, sinesgogor eta jakitun. Beti hor egon den bertsolariaren, gizonaren, lagunaren agurra zen. Badira zubiak, hari zaharretatik arkitektura berrietara, eta badira oinak, jakinduria garraio hara eta hona dabiltzanak, bi norabideetako ibilian: hemengoie hura erakutsiz, hangoak hona hurbilaziz. Hor ibili da eta ibiliko Imanol, doala eta datorrela bertso-errota beti martxan. Eskolarteko txapelketetan epaileen mahaian ezagutu genuen, eskua kopetan, aurpegia erdi-estaltita eta larritasunez begira. Bertsoen eskasagatik ere izango zen, baina oholztan egotea zer den badakienaren enpatia zen gehiago. Berrogehitaka urte geure bitarteko, begirada arduratuko epaimahai-ko haren kantukide izateko suertea izan genuen gerora. Harrera egin zigun lehenengo, gero bidean lagundu eta ondoren aurrerantz bultzatzen, ordurarte gizonena eta helduena zen mundu hartan. Traumatikoak izan zitezkeen aldaketak naturaltasunez gertatu dira bertsolarietan. Zorionak Imanol! Eta mila esker. Hartzen dugu erreleboa, onartzen dugu ardura. Badagokigu eta badugu ejenplua. Jendaurretik aparte, bertso-errotak jarraitu dezala martxan”.*

Guztiok guztiontzat

Auzolana bezalako ohitura onei eutsiz soilik jakingo dugu hobetzeko dagoena aldatzen. Hori ondo asko dakite Mila Landak eta Susana Garatek. 📌 Eneritz Albizu

G

uztiok presaka bizi eta albokoak egiten duenaz ohartzen ez garen gizarte honetan, asko kostatzen zaigu geure burua ez den beste norbaitez kezkatzea; norberaren kolkoa baita protagonista nagusia bakoitzaren ipuinean.

Arlo askotan aurrerantz goaz: teknologiek bizitza errazten digute, energia sortzeko gero eta modu ekologikoagoak ditugu, osasungintza etengabe ari da aurrerapausoak ematen... baina beste zenbait kontutan ez ote gara ari denboran atzera egiten?

Atzera begira

Mila Landari deitu eta berekin auzolanaz hitz egiten hasi eta gaztetako garaiez oroitu da: "Hori ez da gaurko kontua, nire aiton-amonek auzolana egiten zuten Atzaran baserrian, Urrestila eta Nuarbe artean. Inguruan bizi ziren auzoetako bizilagunek elkarri laguntzen zieten gariarekin eta gero afariren bat egiten zuten guztiek. Egun batean denak baserri batera joaten ziren, hurrengoan bestera... eta elkarrekin egiten zuten lan, auzolanean".

Hori entzunda, pentsatu dezakegu: aldaketa eta garapena hitz gako diren garai honetan, duela urte batzuetako ohiturak berreskuratzea joko bagenu? Azken finean, zergatik aldatu jada ongi dagoena?

Atzotik gaurra

Asmo hori izan du Udalarekin elkarlanean



Plazan edukiontzi handiak jarri zituzten errekan bildutako zaborra uzteko. ||| Xabier Otamendi

Zero Zabor taldeak duela bi hilabete, urtarri-lean, antolatu zuen ekitaldian: azpeitiarrek auzolana eginez, guztiona den ibai eta honen izkinak garbitzea, Urola ibaian zero zabor egon dadin.

Idea herritar batena izan zen, Udalak auzoz auzo egin zituen batzar irekietan egin zuen proposamena, eta ez zen denbora asko igaro hau martxan jarri zen arte.

Ekin lanari

Egun ilun eta euritsua izan zen azpeitiarrek Urola garbitzeko asmoz bildu ziren larunbat hura. Agian herritar askok ekitaldian parte hartzea birplanteatu eta planak aldatuko zituzten eguraldia zela eta; baina hala ere, adin eta sexu ezberdinetako jende asko bildu zen ibaiak zeharkatzen dituen auzo ezberdinetan. Elkarrizketatuek jakinarazi dutenez, "hasiera batean herriko talde ezberdinei eman zitzaizen abisua, baina banakoak ere gerturatu ziren". Susana Garate Emakume Mahaiko kidea da eta bertan egin zioten proposamena. Mila Landa, berriz, bere kontura joan zen



Susana Garate eta Mila Landa.

"ideia polita" iruditu zitzaiola eta. Ahoz ahoko komunikazioaz gain, garbiketaren berri emateko Zero Zaborrek kartelak jarri zituen herriko kaleetan, eta komunikabideek ere iragarri zuten ekitaldia.

Garatek dioenez, pentsaera ekologista duen jende gehienari ideia bikaina iruditu zitzaion, baina espero ez zuten jende asko ikusi zuten, "eta hori oso pozgarria da". "Pentsatzen jarrita, geuk zikindutakoa da: zergatik garbitu behar dute besteek? Gainera, egoera ekonomikoa nola dagoen ikusita, ziur guk egingo ez bagenu ibai horrelaxe geldituko litzatekeela".

Landa, berriz, "pena bakarra" du: "eguraldia". Ekimen bezala "oso ekitaldi ona" dela uste du azpeitiarrek eta, gainera, "jendea ezagutzeko eta harremanak indartzeko" balio dezakeela; zabor bilketan parte hartu zuten guztien artean giro bikaina izan zutela eta, oso pozik zeunden parte-hartzaileak. "Hu-

Ibaiko zikinak

||| Ibaia garbitzeaz gain, zein zikinak garen ohartzeko ere balio izan zien goiz hark elkarrizketatuei. Ezin zuten sinetsi ikusirikoa: arropak, burdina, plastikoak, gurdia... "Ezin imajina ditzakegun gauzak".

Mila bera beldurtu egiten da "horrenbeste gauza ibaira nola iris daitezken" pentsatzearekin soilik. ✖

rrengorako hobeto antolatu daiteke, lehenengo aldia zen eta normala izaten da nahaste pixka bat egotea horrelakoetan, baina ez dugu kexurik oso ondo portatu baitziren gurek: Udalak botinak eta eskularruak ere eskaini zizkigun eta antolatzaileak beraiek ere, lanean jardun ziren", dio Mila Landa.

Lan eginez, ikasi

Lana errazteko asmoz, zer eginak banatu ziren egun hartan: herritarren zati batek zaborra jaso zuen ibaitik eta bildutako hondakina bi poltsa ezberdinetan banatu zuten: alde batetik, burdina eta bestetik, gainerako hondakinak. Beste batzuk autoekin ibili ziren Azpeitiko txoko ezberdinetatik zabor guztia plazara eramaten.

Burdina jaso egin zen eta gainerako hondakinak Enparantza Nagusian jarritako zaborrontzi handi batera bota zituzten. Ondoren, zero zaborrek zerrenda bat egin zuen ibaitik jasotako elementu ezberdinekin. "Herritar askori zer pentsatua emango zielakoan gaude: auzolanean lana egitea zer den ikasteaz gain, gure inguruari egiten ari garen kalteaz ere ohartuko ziren", diote emakumeek.

Elkarrizketatuek ibaiaren euren "nahi bezala" gelditu ez zela esan arren, "askoz ere hobeto" dagoela aitortzen dute. "Hala ere, lan handia dago egiteko, Azpeitiko ibai bakarra ez baita Urola: Ibai eder ere oso lohituta dago eta Nuarbe aldera joanez gero, pasealeku albotik pasatzen den ibai zatian dagoen zikinkeria ere ez da batere atsegina", diote Landa eta Garatek.

Lanaren ondoren, ordaina

Behin eginbeharrak amaituta, plazako arkupeetan bildu ziren euripean jo eta ke jardun ziren guztiak. Pintxo eta salda egon zen langileentzat eta patxadaz elkarri goiza nola joan zen azaltzeko abagunea izan zuten. Argazkia ere atera zuten herritarrek, baina "ordurako jende asko joanda" zegoela adierazi dute elkarrizketatuek.


Aurrera begira

Norbaitek ekitaldi honen berri ez bazuen eta laguntzeko gogoz gelditu bada, lasai egon dadila, aurrerantzean ere izango du eta parte hartzeko aukera. Ekitaldiaren balorazioa oso positiboa izan zen bai antolatzaileen aldetik, baita herritarren partetik ere. Honenbestez, udaberri aldera, ahal bada eguraldi hobea goarekin, berriro ere antolatuko da ibai garbiketara.

Egin dezagun guztiok guztiontzat lan!



Loiola San Jose loretan

San Jose aurreko astebukaeran hasi eta San Jose ondorengo astebukaera arte luzatuko dituzte aurten festak. Urteroko asto lasterketaz gain, Mendi Biathloia ere izango da.  Ainitze Agirrezabala

Martxoaren 19an San Jose Eguna da, loiolatarren eguna, eta auzotarrek hileko hirugarren astebururako utzi dituzte festa ospakizunak. Urteroko asto lasterketaz gain, ohitura bihurtu den Mendi Biathloia ere izango da, hamaikagarrenez.

Ostiralean, martxoaren 16an, hasiko da festa giroa Loiolan, Loiolatxan jokatu den mus txapelketarekin (22:00). Larunbatean, berriz, XI. San Jose Sari Nagusia Mendi Biathloia izango da, 16:30ean hasita. Proban parte hartzeko izena egunean bertan, 15:30ean, eman behar da. Parte-hartzea 10 euro da eta beharrezkoa da kaskoa eramatea.

Igandean, berriz, zezen txiki-kin eta poniekin gozatzeko aukera izango dute gaztetxoek (11:30), eta, ondoren, asto las-

DATUAK

||| **Zer.** San Jose jaiak Loiola auzoan. ||| **Eguna.** Martxoak 16, 17, 18 eta 24 (ostirala, zapatua eta igandea). ||| **Tokia.** Loiola auzoa. ||| **Antolatzailea.** Loiola auzoko festa batzordea.

terketa izango da, 13:00etan hasita. Arratsaldean, 17:30ean, herri kirolak izango dira.

San Jose aurreko astebukaeran hasi eta San Jose ondorengo astebukaera arte luzatuko dituzte aurten festak loiolatarrek. Hala, hilaren 24rako, auzo-afaria antolatuko dute. Iluntzeko 21:00etan hasiko dira afaltzen, eta Elustondo anai-arreba trikitilariak izango dira giroa alaitzen.*

SAN JOSE JAIK LOIOLAN

14 kilometro. Parte hartzaileek hamar kilometro mendibizikletaz eta 4 kilometro korrikan egin beharko dituzte.

10 euro. Kostako da parte hartzea eta beharrezkoa izango da kaskoa eramatea.*



Loiolako sanjosetan asto lasterketa jokatzeko. ||| Irene Elorza

BESTERIK

1 Beteranoen triangularra

Anaitasunako, Lagun Onakeko eta Realeko beteranoek triangularra jokatu dute. Nahiz eta gehienak 35-40 urte ingurukoak izan, taldeetan badaude 50 urte betetzekoak ere. Urteetan futbola utzita egon den jendea zelaian ikustea polita izango da.

||| **Eguna.** Martxoak 17 (zapatua).

||| **Tokia.** Garmendipeko zelaia.

||| **Antolatzailea.** Iraurgi Cup.

2 Erniarraitz Sariketako finala

Azpeitian, Errezilen eta Azkoitian kanporaketa bana jokatu ostean, VI. Erniarraitz Sariketako finala jokatu da. Sariketa honen helburua bailarako bertsolari gazteei aukera eman eta bailarako bertsozaleasuna piztea dira. Horiez gain, aurten, Euskal Herriko lurralde guztietara iritsi nahi izan dute; Behe Nafarroara eta Zuberoara iritsi ez arren.

||| **Eguna.** Martxoak 23 (ostirala).

||| **Ordua.** 22:00. ||| **Tokia.**

Gaztetxea. ||| **Antolatzailea.** Erniarraitz Bertsozale Elkarte.

3 Maratoi erdia

Diego Garcia gogoan, Nazioarteko XIX.

Azkoitia-Azpeitia maratoi erdia jokatu da.

||| **Eguna.** Martxoak 31 (zapatua).

||| **Ordua.** 16:30 ||| **Irteera.**

Azkoitia. ||| **Helmuga.** Azpeitia.

||| **Antolatzailea.** Xeye Atletismo Taldea.*

||| Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: uztarria.com/agenda

|||alaitz olaizola|||



|||gurutze olaizola|||

Beste mundukoak eta bi zoro

G

urutze. Enteratu al haiz pasa den astelehen batean herrian sekulako emakume mordoak ibili dela kalean?

Alaitz. Orain hori esaten ari haizela, zerbait entzun dinat. Esan didatenez, emakume handi eta sendoak omen zitunan gehienak, ezpainak eta begiak kolore biziz margotuak zituztenak. Hau ez zionat inori esan, baina hi, ez zitunan ba estralurtarrak izango, ezta?

Gurutze. Pentsatzen jarrita, balkoira atera nindunan batean, ikusi nitinan ibilera xelebrenko ile handi, titi handi batzuek. Urduri, ispilura hurbildu eta nire burua bertan ikustean, lasaitu ederra hartu ere bai. "Zorionekoa hi, Gurutze, ez haiz-eta horiek bezalakoa".

Alaitz. Esaten dinat ba nik, ez zirela mundu honetakoak. Kuriositatez, hurrengo egunean gizonetzkoen falta sumatu al huen herrian?

Gurutze. Batzuk falta zitunan. Ea "abduzitu-ta" eraman zituzten herriko gizon gehienak? Nolakoa izango ote dun beraien arteko nahasketaren ondorioa? Ikustekoa izango dun.

Alaitz. Ufologian espezialista den bati galdetu beharko zionagu, edo Iker Jimenezi, bestela. Dena dela, imajina zezakenat: sendoak izango ditun, luzeak, gizenak asko, eta iletsuak gehienak. Hori bai, dena handia gustatuko zaien. Hasi kotxetik eta bokadiloraino.

Gurutze. Zerbait serioa gertatzen ari dun. Urtetik urtera txanpinoiak bezala ugaltzen ari ditun. Ea benetan estralurtarrak diren eta asmo gaiztoaren bat duten esku artean? Herriko mutilei abisua pasatu behar zionagu: "Bando, bando! Zure burua zaindu ondo!".

Alaitz. "Bando, bando! Begiratu ezazu ondo!". Gure herriko gizonak gustu onekoak direlakoan nagon. Egia dun, batzuetan Martera begira egoten direla, gu Venusera begi-

|||**GURUTZE.** "Caravana de mujeres' horietako batean etorriko ditun hauek"

|||**ALAITZ.** "Zenbat azpeitiar bizi ote dun eguzki sisteman zehar"

ra egoten garen bezalaxe. Baina hi, aipatutako hauek, gutxienez, beste eguzki sistema batekoak ditun.

Gurutze. Orain ulertzen dinat. Hauek "Caravana de mujeres" horietako batean etorriko ditun. Nonbait, urrutira iritsi dun herriko gizonen ospea. Gure gizonak unibertsalak ditun!

Alaitz. Zenbat azpeitiar bizi ote dun eguzki sisteman zehar? Udaletxera joan eta galdetu behar dinat, ea herrian gehiago garen emakumeak gizonak baino. Bikaina! Ezta Iker Jimenezek ere!

Gurutze. Kar! Kar! Kar! Joe Alaitz, oraindik astelehen karnabaleko ajea dinagu. Datorren urtean hobeto fijatuko gaitun, eta Jimenez gonbidatuko dinagu gure dudak argitzeko.✘



||| SOLUZIOAK |||

HITZ GEZIDUNAK

U	A	R	E	N	●	K	I	R	A	B	●
O	K	E	T	A	K	A	T	●	Z	A	I
●	L	L	●	A	I	T	A	N	T	●	●
K	●	O	R	I	●	A	T	E	R	K	●
A	T	E	K	I	A	L	●	A	K	E	●
N	A	B	E	●	A	N	A	G	U	Z	E
U	●	A	N	E	M	A	D	I	●	E	●
L	A	H	A	N	I	G	E	●			
L	I	●	A	S	A	R	E	N	A		
●	O	●	E	●	A	●	E	●			

HITZ GURUTZATUAK

A	K	I	K	I	T	R	U	A			
L	●	K	A	R	A	E	S	A	O		
E	O	R	E	A	G	O	N	A	I	T	I
K	A	Z	A	G	●	O	D	I			
L	A	B	O	L	●	I	U	M	I		
R	O	G	●	A	O	S	A	L			
R	G	●	A	R	I	A	R	E	M		
A	I	N	A	O	D	O	K	●	R		
A	K	A	N	O	F	A	R	O			

||| ZER DAGO SOBERAN, ZER FALTAN? |||



||| ARGAZKI LEHIAKETAN ERANTZUTEKO EPEA. Martxoak 23 (ostirala) ||| NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia ||| IRABAZLEARI SARIA. Odriozola upategiko ardo sorta ||| PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da ||| ZER DAGOEN SOBERAN, ZER DAGOEN FALTAN ADIERAZI.

||| ZURE IZEN-ABIZENAK

||| TELEFONO ZENBAKIA

||| UZTARRIAREN OTSAILEKO ARGAZKI LEHIAKETA |||

ZEIN DA?



ESTITXU ELDUAIEN KAZETARIA



IRABAZLEA



Joxe Arzailus Uztarriako bazkidea izan da lehiaketako 136. irabazlea. Odriozola upategiko ardo sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, Joxe Arzailus, saria eskuetan duela.

ODRIOZOLA ARDOAK

ardoetan aukera zabalena
bertako produktuak eta gutxiak

Iñaki Azpiazu, 5 - Azpeitia - Tel. 943 15 13 16
Axiri poligonoa, 10 - Azkoitia 943850059 / Aitzuri kalea - Zumaia 943860103



Zezena elikaduran

Elikagai garrantzitsua da, nahiz eta seguru egon gazte askok probatu ere ez dutela egin. Euskal Herrian, gehienetan, ardi haragiz egiten da, eta lortzeko teknika ia artisauro erakoa da.

Egia esan, asko gustatzen zait, eta jaten ez badut, gatz asko duelako da, eta errespetu handia diot tentsio altuari eta haren ondorioei: burmuinetako hemorragia asko eta gutxiegitasun kardiakoak horregatik gertatzen dira gure inguruan. Fabrikazio eragatik eta ondoren ontzeko hemen dauden zailtasunengatik, beti egosita jan izan dut, baina beste toki baztuetan, urdaiazpikoa balitz bezala gordinik eskaini izan didate.

Bere zaporea leuna eta gazia da, eta horregatik afaltzerakoan ez jatea gomendatzen dugu, egarria sortzeaz gain liseriketa motela baitu. Halere, proteina aberatsa da.

Konturatu naizenez, janari ketuak, gatzatuak edo piper hautsez landutakoak kontsumitzeko guk baino ohitura handiagoa dute Extremaduran, Andaluzian eta Levanten. Benetako artistak dira mota honetako jakiak prestatzen. Gureaz gain badira ezagutzea merezi duten beste kultura eta ohitura gastronomikoak. Beraz, zergatik ez gozatu jaki horien kontsumoaz?*



||||||| **Julian bereziartua** |||||

LURDES & ANA ODRIOSOLA lurrin saltzaileak



1. Freskoa ala gozoa?

Gehienek freskoa nahiago.

2. Nork oparitzen du?

Gizonek besterentzako, emakumeek beraiantzako.

3. Denbora gutxien nork behar aukeratzeko?

Gizonak. Gutxiago daki, eta aholkuak onartzen ditu.

4. Neurrian omen dago koxka...

Gutxi, baina badago jendea 'igarri dadila', dioena.

5. Ba al dago modarik?

Likido bera beste botila batetan ez litzateke salduko.

6. Oparitarako ez al da errekurtsio klasikoa?

Egun, ez da osagarri bat; luxuzko oparia da.

8. Bitxikeriarik?

Benidormera zihoala-eta, emakumeak arrimatze desodorantea erosi zuen batek. Flaskoa irekitzen, ordea, ez zuen asmatu.*

📞 Ainitze Agirrezabala

Amenabar
DENDA
gortinak, ohazalak,
edredoi nordikoak ...
Eliz-kale, 32-behea - Tel/Fax: 943 15 06 97

AZKOITIA
ERLOJU
KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40
Ekain
Larrialdiak: 943.15 16 40
ALBAITARI KLINIKA

IRENE ALTUNA
LORADENDA
Loiola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87
www.ialtunadenda.com

KIRURI
JATETXEA
Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 55 08
Faxa.: 943 15 03 62

ostadar optika
OPTIKOAK - OPTOMETRISTAK
Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA
Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA


**lentzeria
mertzeria**
jose artetxe, 16
nabar

Koh Tao
OSAGARRIAK
Foru Ibilbidea, 3 • Tel.: 629 686 193
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

domusa

AIZPURU AUTOAK
Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA
aizpuru@aizpuru.net

Atez atekoa pil-pilean

Atez atekoa Azpeitira iritsiko den iragarpenak eztabaida bizia sortu du Uztarria.com-en. Sei egunen buruan, gaiaren inguruko hiru albistetan 70 erantzunetik gora zenbatu dira.  Ainitze Agirrezabala

Atez atekoa Azpeitira ere iritsiko omen da 2013an. Iragarpen horrek eztabaida bizia sortu du Uztarria.com-en. Irizpide kontra-jarriak plazaratu dituzte webguneko erabiltzaileek. Gaiak interesa pizten duela, behintzat, ezin ukatu. Sei egunen buruan, gaiaren inguruko hiru albistetan 70 erantzunetik gora zenbatu dira. Hemen Uztarria.com-eko erabiltzaileen iruzkinetako batzuk:

Igor: "Nire ustez birziklaia bultzatu behar dela garbi dago, baina atez atekoak behartu egiten gaitu eta gainera gure zabor guztia miatzeko aukera irekitzen die zabor biltzaileei. 5. edukiontzia oraindik marjen asko dauka, eta 5. edukiontzia erabiltzaileekin emaitzak hobetzea izan beharko litzateke

|||Irizpide kontra-jarriak plazaratu dituzte webgunean

helburua. Atez atekoarekin planteatzen den formazio kanpaina, 5. edukiontzia erabiltzaileekin egingo balitz, birziklaia portzentaiak asko igoko liriteke, inor behartu gabe, isunik gabe, inposaketarik gabe eta intimitatea hautsi gabe".

Erantzun: "Nik ez dut inposaketa bezala ikusten, kutxatzeko debeku bezala baizik. Inposaketa bat dirudi, erlojuen aurka hartutako erabaki bat delako (gogoratu Zubietan makro-erregulazio bat egiteko moratoria ekainean amaitzen dela). Bestetik, gaur egun zaborra gaika biltzen duten familiak (5. edukiontzia barne) gaur egun baino erosoago biziko dira atez-atekoarekin. Azkenik, pentsatu dezagun zer etorkizun utzi nahi diegun gure ondorengoei.*

|||EFEMERIDEAK|||||


1516

Herriko txerrien zerrenda osatu. 865 txerrientzat jasotako ezkurra banatzeko.

1713

Egurra eskatuz, kexaka.

Ogia erretzeko labeak zitutzenen kexak jaso zituzten. Izarraizko Iturrikoan 60 gurdikada banatu zituzten, eta sei hilabeteren buruan ordaindu zituzten.

 **Iturria:** Azpeitiko efemerideak. Herria historian zehar liburua.

|||Egilea: Imanol Elias Odriozola.
|||Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinakundea.*

|||BIDEOAK|||||



Iker Iparragirre, etxean.*

www.uztarria.com

azpeitiko ataiye

|||eguneko albisteak |||irakurleen erantzunak |||eguneko argazkia |||bideoak |||blogak |||inkesta |||agenda |||bitxikeriak
|||'azpeitia' atala: zerbitzu publikoen ordutegia, autobusen ordutegia, telefono zenbakiak, euskara atala, farmaziak, festak, hauteskunde denetako emaitzak, geografia, panoramikak, herriko taldeak, liburuak osorik... |||uztarria herri aldizkari denak;
PDF formatoan ere bai |||eguneko efemerideak |||gida komertziala...

|||sartu sarean, eta hartu parte |||egunero **7.000** orrialderen bisita



Hitzen erreinuan

Irakurzale, ‘barrako gizona’ eta sare sozialen erabiltzaile. Hori ere bada Eneko Etxeberria.

 Ainitze Agirrezabala

Errauts egunean, artean karnabaletako ajea lagun, hartu du udaletxean Uztarría Eneko Etxeberria (Azpeitia, 1971) Azpeitiko alkateak. Udal politikaren kontuak alde batera utzita, oraingoan bestelako kontuetaz hitz egiteko prest dago, 40 urteetan bizitakoei errepasoa emateko pronto.

Azpeitian jaio zen, Soreasu auzoan, baina hamar urte zituela Landetako Aitzuriaga (Atxuiya) baserrira joan ziren bizitzera. “Aita gaixotu egin zen, eta amaren jaiotetxera joan ginen. Atxubiagara joatean, hango bi osabek –Iñakik eta Joxemarik– lanaren disziplina erakutsi ziguten. Dozena bat urterekin hasi eta 18 urte egin arte, zapatu arratsaldero, lau bat orduz, baserriko lanak eginarazten zizkiguten: belarretan, pintaketan... Gero, afaltzen ematen ziguten eta kalera irteten genuen, lagunengana”.

Izaera “harraro xamarrekoa, berezia” izan dela dio. “Umetan jostailurik gustukoenak Playmobileko monigoteak nituen. Joxelito eta Varelanean erosten nituen soldadutxoak, eta bakarrik jolastea, bakarrik egotea asko gustatu izan zait betidanik. Lotsatia eta lotsagabea izan naiz, aldi berean”.

Unibertsitatera joateko garaia heldu zitzaion arte bizi izan zen baserrian. Zer ikasi erabakitzerakoan, “zalantzak” izan zituen: “ez nuen garbi zer ikasi, baina Bilbora, Deustura, joan nintzen zuzenbide ekonomikoa ikastera. Hasieran, izebatzat genuen Lolaren etxean egon nintzen. Bost urtez bizi izan nintzen han; gero, ikasketak bukatu eta Azpeitira bueltatzean kosta egin zitzaidan herrira egitea. Bilbok dena zuen: askatasuna, anonimotasuna... Han, edozein asteartetan, kontzertu batetara edo zinemara joatea zeneukan;

hemen, berriz, zapatua noiz iritsiko zain egon behar!”.

Irakurzaletasuna, txikitatik

Zaletasunez galdetuta, irakurtzeko duen grina nagusitzen da: “txikitatik atsegin izan dut irakurtzea. Lasaora bidean, Eskusta pasata, Okerkua baserrian bazuen gure amamak Carlota izeneko lagun bat, eta hura bisitatzerara joaten ginen. Ganbara komikiz beteta zuten; ehunka zituzten, milaka ez esatearren. Nik han pasatzen nuen arratsaldea, komiki artean. Magikoa zen. Arratsalde bukaeran, plastikozko poltsa bat ematen zidaten, nahi nituen komiki guztiak han sartu eta etxera eramateko. Astean behin-edo joaten ginen, eta desiratzen egoten nintzen hara joateko. Ni Okerkuako ganbaran zaletu nintzen irakurtzera, komikiak leitu eta komikiak leitu”.

Oraindik ere asko irakurtzen duela adierazi du: "niri literatura klasikoa asko gustatu izan zait. Shakespeare zalea naiz. Orain, Umberto Eco-ren *El cementerio de Praga*-rekin ari naiz. Liburu asko dut etxean, 2.000 pasa. Komikiak ere asko irakurtzen ditut, oraindik: *Spider Man*, *Bat man*, *Patrulla X*, *Star Wars*... Atera kontuak, liburutegian ez ditu inork hartzen, neuk bakarrik. Duela pare bat urte esan zidaten nahi nituen komikiak aukeratzeko, eskaera egin eta ekarriko zizkidatela. Umeekin zapatu goizero joaten naiz liburutegira: liburuak zaindu, hartu eta entregatu egin behar direla irakatsi nahi diet".

Liburuekiko duen zaletasun hori unibertsitatearekin –zuzenbideko irakaslea da, EHU– ere lotzen du. "Unibertsitateko giro horrek badu harrapatzen nauen zera bat. Zuzenbideari buruzko liburu bat argitaratu berri dut, erderaz, eta azken aldian denbora asko pasatu dut idazten. Gozatu egiten dut".

Afizio sutsua duela esatea, gehitxo da, baina berriz ere kirola egiten hastekotan dela kontatu du: "Kirola egin izan dut, azken aldian udaletxeko eskaileretan. Lehen, lanera joan aurretik, goizean goiz, joaten nintzen korrika egitera, Loiolara. Baina, neguan hotzarekin utzi egin nuen. Orain hasiko naiz berriz, san-sebastianetan trajea estu xamar nuela esan didate-eta. Egia esan, hainbeste eginbeharrakin zaila egiten zait oreka edo disziplina batekin egitea kirola".

Barrako gizona

Irakurtzea eta idaztea bezainbeste gustatzen zaio hitz egitea. "Edozer 'diskutitzea' asko gustatzen zait, eta horretarako aproposak dira ostiral gauak. Garai bateko Gau Txorik bi barra zituen, handia eta txikia, eta besteak dantzari ziren bitartean ni barra txikian egoten nintzen hitz egin eta hitz egin. Barrako gizona naiz ni. Egia esan, festa egun handiak baino nahiago izan ditut ostiral gauak. Propaganda egitea da, baina Fideoko ostiral haiek ez ditut ahaztuko".

Sare sozialei fidel

Telebista "apenas" ikusten du, "oso gutxi".



1. Donostian, Kontxako hondartzan, jolasean. **2.** Anaia Oierrekin, Atzubiagako atarian. **3.** Mutikotan ateratako beste argazki bat.

Egunkaria auzia

||| Otsailaren 20an bederatzita urte bete dira Euskaldunon Egunkaria itxi zutenetik. 2003ko urriaren 20an, Eneko Etxeberria Egunkaria-ren enpresako abokatua atxilotu eta inkomunikatzeko agindu zuen Del Olmo epaileak.

"Pasatu zen denak, nahiz eta sufrimendua eragin, jendeak elkartu eta aurrera egiteko duen gaitasun hori demostratu zuen. Egoera halakoxea zen: goardia zibilak gainean, Martxelo-eta torturatuta... beldurraren erreinua zen hura. Orain gauzak erraz ikusten dira, baina orduan logikoa izango zen jendea etxera joatea; baina, ez, jende batek bere bizia hipotekatu zuen. Eta, badakizu zuk jende bati hutsik egingo ez diozun bezala, haiek ere zuri ez dizutela egingo. Jende batekin bitzta guztirako lotuta geratzen zara. Hor badago halako gauza majiko bat. Oraindik hor dago, eta ea ondo bukatzen den kontua".*

Sare sozialen garai berrietara ongi moldatuta dago, eta nahiago du Interneta. "Twitter-en banago, Facebook-en ere bai. Teknologia berrien zalea naiz; gure lanean oso garrantzitsuak dira tresna horiek. Politikarako, komunikatzeko erreminta oso indartsua eta interesgarria da, eta horiek egoki erabiltzen jakitea garrantzitsua da. Halere, Facebook-a baino askoz nahiago dut Twitter-a. Jende batek dena idazten du, eta nik zalantzak ditut; ez nahiz gehiegi bustitzen".

Ministrotarrak

Etxean "oso bertsozaleak" dira, eta hain zuzen, anaia gazteena –Haritz, *Ministro*–bertsolaria da. "Familian bazuten harremana Xalbadorrekin, Mikel Atxagarekin..., baina ni ez nintzen saiatu ere egin". Izenaren jabe anaia gazteena izanagatik, ministro izatera bera ailegatuko den galdetuta, "ez dut uste", dio. "Ezetz espero dut, ez daukat nik horretarako gogorik!". Gaitzizenaren jatorriaz galdetuta dio: "Erdiko anaia, Oier, *Txirri*, *Mirri* eta *Txiribiton* saiora joan zen, eta handitan zer izan nahi zuen galdetu ziotenean, 'Ministro', erantzun zuen, 'diru asko irabazten zutelako'. Orain familia guztira zabaldu da ezizena".*

**OSTIRALERO,
TRAGOAREKIN
PINTXOA DEBALDE!**

zatoz dastatzera!

ORKATX KULTUR ELKARTEAK
Erdi Kalea, 24 - Tlf: 943 150006

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

**URBISTONDO
MARGOAK**

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	0837 80
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

---ren??an izango dute hitzordua,??tik??ra, ambulatorioan.

OSASUNA

Anbulatorioa	0254 00
Anbulator. larrialdiak	02 54 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	8144 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	8900 17
Azpeitian Zer?	8111 00
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemaileak)	687 60 50 06
DV (berriemaileak)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Nabarra	948 22 71 25
Arrate Irratia (berriemaileak)	81 26 32
Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	943 01 23 00
Erla Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Izarraitz Telebista	85 13 05
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 55 70
-----	----------

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	8165 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	8163 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbian.)	273 posta
Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzua	943 08 06 88

FARMAZIAK (MARTXOA)

EGUNEZ

1-6-13-16-21-27	2-8-15-19-24-25-30	3-4-7-14-22-28
Beristain (Azpeitia).	Eizagirre (Azpeitia).	Alberdi (Azpeitia).
943 811949	943 811274	943 815974

GAUEZ

1-2-3-4-12-13-14-15-16-17-18-19-20-21-22-23-24-25	5-10-11-26-31	6-7-27-28-30
Jacome (Azpeitia).	Azpiazu (Azkoitia).	Jaen (Azkoitia).
943 080258	943 852989	943 850660

ORDUTEGIAK

UDALETXEA ||| Asteguna: 09:00-13:30 ||| Larunbata: 09:00-13:00 UDALTZAINGOA ||| Egun osoz irekita egoten da ANBULATEGIA ||| Egun osoz irekita egoten da IGERILEKUA ||| Astelehena: 14:00-21:00 ||| Beste astegunak: 07:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 ||| Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 ||| Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita KIROLEDGIA ||| Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 UDAL LIBURUTEGIA ||| Astegunak: 10:00-13:00, 16:00-20:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 ||| Udan, Gabonetan: 08:30-13:30 ZAPO TXOKO ||| Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 ||| Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



TAXIBUS ZERBITZUA.

Erabiltzaileek gutxienez egun bateko aurrerapenarekin eskatu beharko dute, 943 000 117 telefono zenbakira deituta. Erabiltzaileek lurraldebus-en txartela erabili beharko dute ordaintzeko.

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 27 18
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

||| autobusen ordutegi osoa:
www.uztarria.com/azpeitia/
autobusak

8	9	29
Beristain (Azpeitia).	Eizagirre (Azpeitia).	Ruiz (Azkoitia).
943 811949	943 811274	943 851966

JON RUIZ DE ARGANDOÑA

Playa del Carmen (mexiko)

“Joaten naunen tokiak itsasoa eduki behar din”

Herritik kanpo bizitzen daraman bost urteotan bazter asko zapaldu du; batez ere, Asia aldean ibili da. 📌 Ainitze Agirrezabala

Denbora duk Azpeititik kanpo bizi haizela. Nondik nora habil?

Bost-sei urte baditun kanpoan bizi naunela, nahiz eta Azpeitian bizi nindunanean ere sarri kanpora joan Koh Tao dendarako gauzak erostera. Londresen urte eta erdi egin ninan, baina batez ere Asia aldean ibili naun, Thailandian, batik bat. Azken lau urteak han pasatu nitinan, eta inguruko herrialdeetara joaten nindunan oporretan. Mozambikera ere eskapada bat egin ninan. Orain, Mexikon, Playa del Carmenen bizi naun.

Nolako duk hi bizi haizen herriko jendea?

Herri turistikoa denez hasieran nahiko itxiak ditun eta aurreiritzi asko ditun kanpotarreki-ko, baina behin beraiekin lanean tratatutakoan asko aldatzen dun gauza. Hemengo jendearen –Mayak– egoera ez dun batere pozgarria, oso baztertuta zeuden. Normala den bezala, gorroto puntu bat baditun kanpotarrentzako, baita beste probintzietako mexikarrentzako ere, inbadituta sentitzen ditun.

Azpeitiak ez duen zer dik horrek?

Itsasoa. Asko gustatzen zaidan, eta lana ere

itsasoa egiten dinat. Joaten naunen tokiak itsasoa eduki behar din.

Horko zer gustatu zaik gehien?

Hemen ur azpiko munduak ematen dituen aukerak: urpean igeri egitea, Cozumel irlan, batik bat. Oso ona dun, marrazo baleen, marrazo zezenen eta ezpata-arrainen artean. Nik apnea ikastaroak ematen dizkinat, Cenotean. Urperatutako dolinak dira Cenoteak, eta horiek ezagutzeko beste modu bat eskaintzen dinagu.

Eta, zer gutxien?

Zoritxarrez toki turistikoetan egon behar dinat lanerako eta horrek ekartzen duen txikizioa eta askotan injustiziak ikustea.

Azpeititik zer botatzen duk faltan?

Eguraldia ez behintzat! Etxekoak.

Euskal Herriaz ba al zekik ezer horko jendeak?

Adituta bai, baina gauza handirik ez! Espainolak eta euskaldunak zaku berean sartzen gaitziten, askotan.

Euskaldunik ba al zagok hor?

Bai, Debako bat ezagutu ninan; baita bilbotar eta gasteiztar bat ere.✳



1. Urpekaritza egiteko pronto, La Lagunan.
2. Mexikoko Cozumel irlan, deskantsatzen.
3. Apnea urpekaritza egiten.



3

Andoni 'Nuarbe' Oionen

Jende askok ez daki Oion badenik ere. Nik ere ez pentsatu!

Hogeita bat urte daramatzat hemen. Nolatan etorri nintzen jakin nahi duzu... Lagun bat banuen hemen ari zena, euskara erakusten. Dozena erdi urte zeramatzen Oionen, eta beti betikoan: "Etorri behar dek!". Eta etorri nintzen behin, eta etorri nintzen berriz... Eta ardoa edan, parranda egin, bueltaka... "Paraje diferentea dek, baina polita, hala ere!", holako topikoak esan, eta buelta etxera, Azpeitira. Halako batean, lagun bat hil zitzaigula gertatu zen, eta omenaldia egitea bururatu zitzaigun. Hildako haren gustuko kontzertua eta afaria izan ziren... Gau hartako parrandan, goizeko ordu txikietan, hemen ari zen lagun hari agindu nion bi urte emango nituela Oionen, euskara irakasle. Bi urte igaro, eta berak egin zuen hanka, ni hemen utzita! Horrela, hogeita bat urte joan zaizkit hemen.

Nuarbeko zulotik begiratu eta zuria eta beltza zitzaizkidan hura eta hau. Ardo lekua, toki lasaia –nahi nuke!, neu etortzen nintzen lasai!–, eta askoz gehiagorik ez. Lagunarteko esamesak: "Hura Espainia dek!", eta antzekoak. Nik ez nuen horretaz gehiegi pentsatzen. Laguna nuen hemen, eta horixe hartzen nuen kontuan. Egia da, hona etorri –parrandan etorri, esan nahi dut– eta gutxi egiten genuen euskaraz, gure lagunarte hartatik kanpo, behintzat.

Dena dela, ni ez nintzen bizitza dena euskaraz egindakoa. Iruñean izan nintzen estudiantzen, lau urte, eta han gaztelania zen gehiena. Txikitán, Nuarbetik Azpeitira jo genuenean, Errioxako Huercanos herri txiki bateko mutila izan genuen apopilo –"Nardi" haren ezizena–, eta nahiz eta ikastolan esaten ziguten gaztelaniaz ikasi behar genuela, akordatzen naiz ni ordurako dezente moldatzen nintzela. Eta nuarbeta izan arren, gaztelaniaz ikasten aurrera xamar ari nintzen. Oiona etorri eta gaztelaniaz bizitzeak ez zidan halako ikararik eman... Hala ere, izaten



|||||||miel a. elustondo|||||||

|||Behin, igerilekutik irteeran, "Agur!", esan nuen. Han zen batek, "Sera hasta luego", erantzun zidan

nuen eta izaten dut oxigeno naturalaren beharra eta Azpeitira jo ohi dut, euskaraz entzun eta hitz egitera, edo azpeitiarrak ere etortzen dira hona...

Duela hogeita bat urte etorri nintzen, orain ez bezalako garaian... Nire aurretik izan zen irakasleari Laguardiako alkateak esan ziona daukat gogoan gordeta. Bata kalean gora, bestea kalean behera, parean direnean, alkateak: "En este pueblo, tu o yo, pero los dos no", esan zion. Garai hartatik hona, ez zait antzekorik gertatu. Garai hartan bertan, Laguardiako eskolan, Gabonetan, musika irakasleak Olentzero kantua jarri du. Alkate haren emaztea eskolara joan zitzaion irakasle hari, gelatik irtenarazi eta zertan ari zen bato zekien galdetu zion... Neuri gertatua, berriz, hauxe. Behin, igerilekutik irteeran, "Agur!" esan nuen. Han zen batek, "Sera hasta luego!", erantzun zidan. "En cristiano". Eztabaidan hasi ginen, Espainia zela hau, espainolak ginela... Garai bateko kontuak...*



ATE IREKIAK



Inskripzio epea
zabalik!

Goi Eskola Politeknikoa

Arrasate MARTXOAK 15 osteguna, 17:30

Ordizia MARTXOAK 24 larunbata, 10:30

Enpresagintza Fakultatea

Oñati MARTXOAK 24 larunbata, 11:00

Irun MARTXOAK 31 larunbata, 11:00

Gastronomia Zientzien Fakultatea

Donostia MARTXOAK 17 larunbata, 10:30



www.mondragon.edu/prest

902 110 436

BATXILERGOA EGIN NAHI? zatoz!!!

azpeitiko
ikastola

ikasberrikoop.e.

www.azpeitikoikastola.com - 943 15 12 46



UNIBERTSITATERAKO ATE GUZTIAK ZABALIK

1-ZIENTZIAK ETA TEKNOLOGIAKO BATXILERGOA
2-GIZA ETA GIZARTE ZIENTZETAKO BATXILERGOA

Ordutegia batxilergoan?
08:30etatik 14:50ak arte.
Arratsaldeak lanerako.
Autobusez noa eta
jangelan geratuko naiz!!


JUNE

EGA eta selektibitatea
denok gainditu ditugu.
Emaizta borobilak!!
Eskerrak irakaslearekin
arratsaldetan geratu
naizen liburutegian!!

JON

Biharko tutoretza Europako
bidaia prestatzeko eta
ondoren laborategiko
praktikak. Ordenagailu
txikiekin IKASYS ere
badaukagu eta gainera
blog bat egin behar dugu.
Biharkoa egun bete!!
Arratsaldean liburutegian
geratuko naiz aurreratzeko

IRAITZ




Santi Lazkano Kirolak

Jose Artetxe 1

Tel/Fax: 943 81 16 50



UDABERRIA-UDA 2012



Hortz-implanteak
Ortodontzia
Aho-kirurgia
Protesiak
Erradiologia
Aho-estetika

Eta zurrunken arazoarentzat ere badugu irtenbidea:

Ortoapnea protesi iraultzailea da zurrunkentzat soluzio eroso,
erraz eta eraginkorra

www.grupohorzkari.com

Iberotarren plaza, 4 behea
20730 azpeitia gipuzkoa
t. 943 81 44 50
f. 943 81 50 52



Osasun Arreta Ziurtagiria
duen Euskal Herriko
lehenengo hartz klinika